BEA SALABERRI

BAIONAK EZ DAKI

Bea Salaberri

Baionak ez daki

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2015 Bea Salaberri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2015eko urria
Edizio hau: 2015eko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Negarra begian

Argi hastea. Zalu noa, negarra begian. Ene urrats deliberatuen oihartzuna hedatzen dute Baionako harresi zaharrek, bide harriztatuan gaindi. Malko bat lerran doakit begi izkinatik matelan behera: brista, ahurrean lehertu dut.

Ez naiz triste. Batere.

Goiz hotza da gaurkoa eta firfira freskoxeak harrapatu nau autotik ateratzean, sudur zuloetan gora zihoakidala aire ia izoztuak sesitu nau, hatsa moztuz eta begiak xistatuz: betazalak kliskatu behar izan ditut bizpahiru aldiz harridura haizatzeko malko batez.

Goiz da oraindik, igartzen baizik ez den eguzkiak ortzi-muga urreztatzen du horailetik gorrailerainoko abanikoa eskainiz. Lanerako ohiko bidean, aireak usaian baino garbiagoa dirudi, egun hasteko argi gardenak eta izar-ihintzak bezperako kutsadura erantzi bailioten. Bakarrik noa, haia-haia, zubi-altxagarria iraganez, maldan behera ibai ertzera juntatzeko, hiri guzia oraindik lotan dagoela. Banoa, arin, sorbeltzen balleta eta txori hiritar zenbaiten tiuten artetik, isilik.

Arnasa hartzen dut, sakon eta kresalez kargatu itsasaire bipil eta lerdena, hastear den egun birjinalaren antzekoa, zintzurrean behera bular zolarainoko bidean sentitzen aplikatzen naiz. Egun berri eta luzearen atarian, pentsaketan nabil, dena oraindik egitekoa dela pentsatuz, azantzik egitera ausartzen ez den hiriaren mugetan, oraino zenbait minutuz zozoki sinetsiz alda dezadan zain dudala mundua, oraindik ez dakizkidan ekintza handios zenbaiten burutzeko menturan. Orduan ez dut dudatzen, ez arrazoikatzen, firrindaka noa, distirant.

Etxeen aitzinaldeak argiztatuz doaz, ezki ondo zut-zuten adar biluzi zurpailak ere gisa berean eta eskaintzen duten ikusgarriak ez du parekorik izanen egun osoan. Bada zerbait goizalde horietako bakardadean gatibatu ezina.

Istantean, usaiako jendeak gurutzatuko ditut zibilizaziora hurbildu arau, behako batez agurtzen diren kideak, ibilbide eta sentimendu berak sekretuki partekatzen dituzten konplize ezezagunak. Bonjour eta addio herabez joatera uzten direnak.

Gainaldetik iragan zait katedraleko belatza, airaldi leunean, San Andres plazarantz, pasaian gertatu urtxo zirtzil guziak haizatuz harago: badirudi lehian datorki-

dala ea gutarik zein lehenago heldu auzoaren beste puntara. Hiriko hesteetan barna noa, beharrak zirimolan irentsia nau jada, zarata artean, ilunabarrez askatzeko: gaua jaitsi arteko gatibua. Eguna hastear bada, alderik gozoena iragana zaio jadanik.

Hantxetan dira autobus txikiaren zain herriko zerbitzu zenbaitekoak litezkeen langile kurios xifrituak:

– Ohartu zira Angélique ez dela sekulan bere haurrez mintzatzen gurekin? Edo senarraz?

– Konfiantzarik ez duelako guregan. Segur. Bestela kondatuko luke.

Karrika garbitzaileek lana bukatua dute, plaza xokoko ostatuan daude lerrokaturik, kafe minez, nire gisa berean.

– A baionesek fusiorik ez? Les *pissent-bleus*... Ez duzue fini jaustea!

– Miarriztarrek bazenekite zer zafraldiak biltzekoak zareten derbitan!

Beti bezala, damu naiz ez goizago abiaturik, amildu aitzin ikusgarria hobeki, luzeago, gehiago gozatzen ahalko bainuen, azken izarraren itzaltzea, zeruaren kolore arrosa horailak, nabardura guziez jabetu arte, orainaren ifrentzuan den momentu xoragarria haztatu eta hari heltzeko.

Mandarinak

Telefonoa zirrintaka hasi zenean, tarrapataka harrapatu nuen: bikotekidea zen, egitekoen aitzinamenduaz abisatzeko asmoz.

– Maitea? Bon, erosketak eginak ditut e! Ez kezkatu horregatik.

– Egia? Primeran. Guzia atzematea lortu duzu?

– Bai, zure papeleria berezia salbu. Eta, fruituen artean besterik ez zenez tentagarririk, mandarinak hartu ditut merkatuan. Aldatzeko! Sarri itzuli bat botanikora? Azken egunak zabalik dela.

Etxera sartu eta hor dira pausaturik jangelako mahaiaren erdi-erdian, apaingarririk gabe, zare borobil batean bildurik: mandarinak.

Azaroko lehen egunak dira, hozpil eta grisak, arbolak bipilduz doaz, emeki-emeki, udazkeneko estali koloretsua erantziz istil artean galtzeko, zeru zola hodeitsu negartia agerian utziz. Egun hauetan, alegeratzeko arrazoi gutxi eskaintzen du kanpoak eta barnean kausitzen dira perla biribil urreztatuak.

Gainerakoa ahantzi eta esku artera bildu orduko lehen fruitu gorraila, poliki-poliki, azazkal inklinazio xorrotx batez, urratzen zaio azala eta *psit* batean zili-porta mehez errenditzen da herri urrun beroetako altxor ñimiñoa gela osora zabalduz usain gozagarria. Hastapena baizik ez du baina jada bereak egin du. Irentsia izan aurreko tartea laburra izanen zaio orain.

Perfumeak maiz ekartzen ditu berarekin beste zenbait opari.

Haur denborako eguberri garaietako oroitzapenak dakartza, baserri zaharreko barne ilunetan familia artean neguko fruituak banatzen zirenetakoa, txokolate esne beroa lurrun artetik dastatzen zenekoa.

Berant arte burutzen diren jokoak oroitarazten ditu: nork ez daki mandarina tirada luze bakarrean xurituko duena ezkontzeko on dela? Nork ez ditu orain-dik sekretupean holako apustu txikiak egiten bere kolkorako?

– Baietz aldi bakarrean xuritu!

– Aldi honetan tirada bakarra eta gainera fin-fina!

Edo, behin mandarina biluzi ondoan, azala berriz biltzea, biribildurik, jatorriz bezala, eta ondotik etorriko denari uztea mahai izkinan? Irri karkaila artean utziko zaio eskutan hartzen eta purtzupilkatzen. Zei-

nek ez zituen eguberriko izeian zintzilikatzen azal arrasto laranjak? Apaintzeko baino, arratseko zimeldu beharko zuten lurralde beroetako azal usaintsuek beren baitaratua zuten urrinaren zabaltzen uzteko pixka bat gehiago. Helduaroan berdintsu, neguko arratsaldeko askarietan segitzen du oasia sortzen, lurralde tropikal idorretako berotasuna ekarriz sukalde xokoraino.

Xerraka ahoratzen da, beti pentsatuz denbora hartuko dela, hala beharko litzatekeela, gozatzeko eta azkenean ahamen batez kliskatzen da, uda oroitzapena aho betean, protokoloak nahi lukeena zangopilatuz. Mandarinaren freskotasuna ez dute sasoiko beste fruituek, sagarrak, intxaurrak eta bestelakoak ez zaizkio ez eta aztalera heltzen, bigarren mailako uzta, gusturik gabekoa, bilakaraziz. Xixterrez xixter desagertuko da oharkabean azaroko mirakulu txikia, jus zaporetsuaz betez barne guziak.

Zorionez oraindik beste zenbait daude mahai gainekо zarean bildurik, merkatuan ez baitzen besterik, zain, zorte krudel berera kondenatu eguzki gorrail txikiak.

Zergatik ez?

Arratsalde apaleko gomita:

– Goazen zerbaiten hartzera?

Mekanikoki pentsatzen hasi zara ea denborarik ote duzun, premiazko zenbait eginkizun; di-da uxatu dituzu dudak: noski, zergatik ez? Egunaren atal emankorrena iragana zaizula iritzirik ez diozu neholako trabarik gomitari. Haratago, nagusitua da zernahiz eta deusez elekatzeko enbeia, erronkarik gabeko solas libragarrien harilkatzekoa.

Kafea, edo tisana, dutea bezain aitzakia on, merke eta eraginkorragorik ez da momentu goxoaren pasatzeko. Ur xorta beltzaun garratza, landare usaintsu exotiko zenbaitez egosi tisana edo bertute xamaniko zenbait gatiba ditzakeen dutea, bakoitzak bere atseginari, edari sozial horien podereak antzekoak baitira: bizi garela sentitzeak du inporta.

Ostatuaren zolaraino jartzera joan gara, urrats auherrez, sigi-saga, aulkien artetik lerraka bezala. Alegia deusez, aparteko mahaian eseri gara, ustez soetatik baztertuenean. Ez gara elkarren parez pare ariko,

formaltasun kutsua bailuke, elkarren ondoan jarriz mintzatzeko giroa jartzen da lasterrago.

Edari beroen inguruko erituala betetzen doa, mekanikoki, adosturiko protokolo konplexu eta zehatza: bestelakoetarako aitzakia hutsa. Eriak dantzari jartzen dira edalontzien irakinen azaletik inguruka, zeremonial horretako plazeretatik bat baita atzamarren egostea portzelanaren kontra. Hurrupa herabe batez, ahoa ahalik eta emekien hurbildurik kikara hegira, ezpain eta mihi puntak erre ondoan, zapore guziak zapartatzen utziko dira aho zolan, berotasun gozagarria gure baitaratuz trago batez, zintzurrean behera emeki helaraziz, barne osoaz jabetzera utziz. Gorputzak leherturik sofa erosoetan, nehori inporta ez zaion giro musikalaz kulunkaturik: arimek jada ez dute trabarik, ostatuaren lau kantoietatik zabaldu beti modan den Niko Etxarten boz erlastua ez bada.

Ausart gaitezke erretorika hutsean, solasen ordena eta funts naturala irauliz:

– Hilabete honetako erakusketa zeinena da? Dalbretena, ez? –aski ziliportatsua iritzirik hala izateko.

– Entzuten duzu Trenet zuk? «J’ai ma main dans ta main»? –irri ozen bat, eskerrak kafe bat baizik ez garela hartzekoak.

– Gaizki lo egin dut barda, blogean idazten afaltzea ere ahantzi nuen... –eta bat-bateko kezka hori erran ondoan: zer pentsatuko ote du nitaz.

– Xiberoan zernahi gauza asteburua pasatzeko...

Badira gauzak hurbildu bezainbat bana dezaketenak.

Dotorea zait zure eskuen dantza etengabea, solasaren argigarri. Eri dantzariz bere lekura jartzen duzun xerlo errebeldea. Atsegina zait erranaldiak momentu egokian eteteko duzun moldea denbora suspendituz. Ongi ezagutzen ditut jada zure larruzko eskumuturreko higatua eta zure ukaraiaren mugan sorburua duen tatuaia erdi gordea. Nahasi nau, elkarren aldez alde gaudela, zure ukondoaren igurtziak. Ez da besterik egiteko, bakarrik hor egotea, tenorerik gabe.

«Nik gomitatuko zaitut!» diozu doi-doietarik hunkituz zaku zolara moltsaren bila doakidan eskua eta bere oldarrean gelditu z. Norbait ohartu ote da? Eta orduko inguruko guziek unea ahantzia duketenean, biharamun azkorrian karrika anonimoetan zehar ibiliko zarenean norbait ohartuko ote da bezperan bezala jantzirik joanen zarela?

Txipiroiak Donostian

Memoria bada gauza bitxia, biziki. Ez hainbeste selektiboa baita nahi duena gordez, baizik eta nahi duen forma eta asoziazioekin egiten duelako.

Adibidez, historikotzat eman egun hartan, zeinetan ETAk azken bi hilabeteetan espero zen su-eten iraunkorra iragarri baitzuen, irakasleen arteko bilera bat zela eta Donostiako Amaran gertatu nintzen. Egia giroan zerbait sendi zela goizetik, iparraldetik nekez sentitua. Desberdina. 2011ko urtarrilaren 10a zen. Alta, egun hartaz lehen kolpean nik gogoan dudana da txipiroiak jan nituela.

Arratsaldeko biak pasatuxeak zitezkeen eta ni hamikatua. Urtarrileko eguzki zuriaren pean euskaltegiaren egoitzaren aitzinean, oraino bestalde bildurik ziren lankideen zain nengoen: ordubete lehenago jakinik su etenaren komunikatuaren berria. Ez zidan sentimendu berezirik eragin, ez nekien sobera zer pentsa eta, ordukotz, nekez nezakeen irudika bidea laburra gerta zitekeela libertateraino.

Pertsona aldi bat atera zen lantokitik, gehienak jarri ziren multzoan bideo berari beha haien eskuko tresnerietan. Batzuk marmarikan aritu ziren, azken minutuko laneko arazo bat doaike, ez nuen dena ulertu: euskalkiak baino erreferentzia kulturalak trabagarriak dira batzuetan. Denek arranguratuak ematen zuten. Aurpegiak markatuak, zimurtuak. Iruditzen zait hegoaldeko gure anai-arrebak gu baino fiteago zahartzen direla, desberdinki behintzat.

Zeri pentsatzen zuten? Honek hauteskundeei pentsatuko zuen. Agian laster berriz ikusi beharko zituzketen lagunei edo senideei pentsatuko zuten haiek. Sekulan berriz ikusiko ez nuenari pentsatu nuen nik. Denek biharamunean berri honi emanen genion segidaz gogoetan genbiltzan. Historian bakanetan gertatzen den zerbaiten atarian ginela bagenekien. Aldi berean, agiri berantetsia ikustean, pixka bat galduak eman zuten. Ez zen gehiago espero. Ez genekien. Gose nintzen.

Biak eta hamar, zigarreta lehertu nuen. Ateratuak ziren azkenak, barne iparraldeko ene lankideak.

– Bagara? Bagoaz bazkaltzera?

– Bagara, bagara, aitzina bazkaltzera, Baionara heldu arteko bidea ez genuke jasanen bestela.

Biak eta erdiak ziren mahaian jarri orduko. Euskaraz tutik ematen ez zuen zerbitzaria gureganatu zen. Gure betiko jokoan ariko ginen, nolaz ez? Menua gazteleraz botako zigun, bost aldiz errepikaraziko genion, eta beti berdin emanen zigun, indar izpirik egin gabe letania ulergarria bilakarazteko. *Pescado* eta *chipirones* ulerturik, tira, hori hartuko genuen.

Jatetxean ere giro berezia zen, ez ohiko solasak, behatu nien alegia deusez.

Barran, bi gizon. Helduak. Espainolez ari ziren, denen kontra bazuten zerbait.

– Ordukoa, sekulako aukera politikoa izan zen!

– Bai, horixe, ez dira horrelako bat berriz ikustekotan!

– Gure hitza ez da errespetatzen.

– Horrela egin behar zen. Zergatik ez zuten horrela egin?

– Bitartean, gorriak eta bi ikusi ditugu!

Bi sosetako analisiak, aterabide merkeak, barraren izkinan.

Ezkerraldean, hirukote bat. Pozik ematen zuten. Euskainolez.

– Gaurko egunean ezker abertzalearen indarra ukaezina da.

– Alde dugu haizea, baliatu behar aukera guziak jada.

– Azken bi hilabete hauek zein luzeak izan diren, ez? Benetan, ez dakit zergatik.

– Ba, bihartik goiti badugu lan, eta nik uste prest ere gaude.

Sentitzen zen aspaldiko partez, bero zirela. Bi plateren artetik solas sakon eta funtsezkoak, bazter batean.

Eskuinekoak besterik zuen, bost axola kontestu politikoa. Zerbitzari murrukutunarekin bilduak ziren, orduan preseski indarrean jartzen ari zen legeaz, zeinek debekatzen baitzuen erretzea leku publikoetan; mila itzuli ematen eta kexu: bazkal ondotik ezin izanen baitzen erre. Sekulan entzuna ez nuen bat:

– Aizu baina, badakizu? Airbus A380 hegazkinek eragin kutsaduraren ondorioak zein dira? Zigarreta zenbaitzuenari konparatuz? Zer?

– Ostatuetako keaz egiten duten auzia ez da zuzena! Dena den, auskalo noiz arte beteko den!

– Ezina! hemendik sei hilabetetara lehengora berera itzuliko gara.

– Ea ordukotz zure A380ei buruz debekurik jartzera ausartzen diren...

Irri egiteko parada, minutu pare batez.

Egun historikoa zen, aurpegietan, posturetan, solasetan, airean ere. Donostiako aireak, urtarril betean egoteko, primaderakoa zirudien, fresko eta bizkorgarria, berri eta garbia. Sentimendu eta pentsamenduak nahasten ziren errazki, hainbeste espero hainbeste egiteko eta momentua heldua.

Eta niri aipatuko badidazue, txipiroiak oroituko ditut. Txipiroiak plantxan hain xuxen. Ez gaziegiak, gozoak, goizetik arrantzatuak dudarik gabe. Ozpin doi bat gehiegirekin erranen nuke. Ez zituzten beste behin Aita Mari jatetxean janak izan nituen beste haiek balioko, urrundik ere; halere gustatu zitzaizkidan: txipiroien eta nire arteko kontuak.

Azken arrainki puska irentsi, hegoaldekoek bakarrik egiten dakizkiten ebaki ahotik ezin utzi horietarik bat kliskatu eta parti. Egun historikoa izateak alde batean ez baitzigun egiteko demasa ezeztatuko bestaldean.

Emazteen zakua

Saltegitik atera berria da usaian baino tenteago doan silueta. Ezin eutsiz, jadanik espaldatik behera zintzilik darama zaku erosi berria, gaineratekoak purtzupilka bildurik saltegiaren logoa daraman paperezko poltsan.

Zaku berria. Ez tipiegia, ez handiegia, diskretua, poltsa anitzekin. Doia kario, honen saria inbertitu zitekeen ondoko oporraldiko bidaian, etxeko tresna zenbaitez jabetzeko. Bizkitartean, detaile hain eroso eta finak zituen non kasketaldia, gormandiza bekatua, arintzen baitzuten; huskeria baina ez hainbestekoa, *uau!* batean eramana.

Ikusi orduko, lehen soan berean irudikatu zuen zer kokatuko zuen non, ikusi zion orain artekoek ez zuten elegantzia, praktikotasuna, ontsa ezkon zitekeela aitzineko astean erosi jantziekin, segurki inbidiak eta kuriositateak sor litzakeela, errentabiliza lezakeela errazki ateraldi eta besta orotan. Badira sakrifizioa merezi duten futilitateak: filosofia oso bat.

Etxera heldu orduko, egonen zen beste doinurik.

Espero izaten da etxera iraultza txikia ekartzea, berritasun bat tximeleta efektua eraginen lukeena, betikotasuna matahamia bezala itzulipurdika jartzeko. Baina ez.

– Zertarako behar duzu hain handia? Zergatik hain kario pagatu? Zergatik larruzkoa? Zergatik orain? Zergatik beste bat gehiago? Zerekin betetzeko?

Di-da, jada han dira denak, bazar harmoniatsuan: aspirina, mokanesak, moltsa, paperak, haurrarendako xatarra, boligrafoa, txikleak, ikastolako mezua, giltzak, tampaxa, erran gabeko bost egia krudel, postan sartzeko gutuna, hitzemandako bi afari, esparatrapuak, autobus txartela, behar dena hots.

Eta mundua kasik xuxenago doa, emazte zaku bat dela, edozein gizonen gogoa bezain argiki antolatua.

Euritakoa

Ardura berdintsu gertatzen da. Aroaren iragarpenari bi gauzaren artetik behatu, etxetik presaka atera: euria ari du.

Horrela harrapatu nau, ustekabetarik eta aldi berean ezusterik gabe. Hastapen bateko lantzurda hotzari segida eman dio laster jario nasaiagoak eta Baionako karriketan gaindi noa zipatzen. Ibilbidea laburtzeko, Espainiako karrika utzi eta Lagréou eta Gosse kale hertsietan barna abiatu naiz Baiona Ttipira jausteko, eta leku hauen iluntasunak hezetasuna azalera barnago akuilatu dit.

Espaloiaren bazterrez bazter murruen arrasetik noala eraikinen teilatu-hegalek eskaini babes erdi horretaz baliatu nahiz, Gosse eta Arraindegi karriken kantoian gertatzean, jausten ari zen konkor parasoladunarekin kasik jo dugu elkar:

– Hala! Egunon!

– Egunon! Hau uharra! Zauri enekin!

Gorputza erdi makurturik aterkipean, begirada euri xorten artetik luzatu dit eta bide beretik, hitzik

gabe, tinki heltzen duen euritako beltz bustia: esku bat luzaturik, makila mehe baten puntan, elkartasun eta laguntasunaren seinale xume bezain goxoa. Pozik onartu dut gogo onez eta interesik gabe eskaini aterpea.

– Elkarrekin joanen gara. Errobi bestaldera zoaz, bai?

Bidaideen inguruan oihal meheak diseinatu zirkulu ertzetatik behera datoz ur zirriztak jada, gorputz bilduen inguruko eremua definituz, mugatuegia alabaina, alta burbuila jabalgarria, gorputzen gerizatzailea, aroaren jazarpenari eten prekarioa. Abiadura egokitzen du bakoitzak, fite joan behar da, eskaini aterpea behin-behinekoa eta feirosa baita eta edozein momentutan debaldekoa, noiznahi haize ufada batek bultzatu ziliportek aurpegia zipriztintzen digute-eta! Baina ez da sobera fite joan behar ere, urrats eta gorputz mugimenduek koordinatu behar dutelako, batera mugitu, bat egin uneko erasoei estuki, bestela, laster, ttantta izoztu zenbaitzuek lortuko lukete beste behin buru kaskotik, ileen artetik behera, lepondoan gaindi irristatzea, euriaren kontrako borroka txikia galaraziz.

– Zure semea ikusi nuen joan den egunean, zenbat handitu den!

– Lanez aldatu nahi nuke. Entzuten baduzu zerbait, oroit nitaz. Ez naiz presan.

Solasek ere parasolaren zirkulutik haragoko giro hozpilari hesi egiten diote. Ez gara eguraldiaz mintzatuko, ukatuko dugu, eginen dugun ibilbide zati motz horretako garaipen txikia! Mintzatuko gara, laster batean, mila gauza ezdeusez, promiskuitate ezti horretan solasgaiek ez baitute inporta.

Intimitate heze eta beroa, esku batez luzatua, hurbiltasun doitua, gizataldeetako konbentzioek baimendu hura, besterik ez, doi-doia gehiago, ez gehiegi. Saihetsak juntaturik, agian beso bat gerri bati ingurаturik, hatsak juntatzen direla hala beharrez oihalezko kono zaratatsuaren peko espazio biribil eta meharregian. Eta aurpegira haizeak salbaiki ufatu kidearen ileak. Egoera delizios justifikagarria.

Elkarrekin egin zitekeen Marengorainoko bide puska bukatu dugu oharkabean, banatzeko tenorea da, parentesi umelari bukaera ematekoa:

– Pasa egun on! Beste bat arte! –luzatzeko artean, amaitu da.

Bietarik bat gelditu da doakion atearen aitzinean presaka gakoen xerkan, lehenbailehen barnera ihes egiteko.

Araiz, bihar ere, euri uhar bat eginen du gisa berean.

Garbigailu-larsen

Sartzerakoan igarri dut garbigailua martxan dela, engoitik zikloaren erditsutan. Ia hautemanen den urruma eztia da, tarteka nahasiagoa eta kementsuagoa. Istant bat iragan ondoan, usaia harturik ez dut gehiago entzunen ere. Bilduko nau, noizbehinkako tirrinta ozen eta samin batek haren presentzia oroitarazi arte. Azantza horrek entretenituko du bakardade isila eta aldi berean apurtuko, eztiki: etxearen eta familiaren arima eta murmurioen transkribatzailea da, leku hauetako izpiritua.

Badituenez zenbait urte dagoeneko, zoratuko da erraz programa bukaeretan, huts egite tipiak gertatuko zaizkio, akidurazko ur xirripa isurketak, egoitzako trenkadak oro bibraraziko. Bizkitartean, barkatuko diogu, badituelako haren alde sekulako zuriketa galka aldiak buruturik zintzoki: mendi ateraldietako galtzerdi mutxitu istilez beteak, jantzi finagoak eta dentelak, erridauak... On-gaitzen lekuko konstantea da haren zokotik. Horregatik, egin duen lan guziaren esker onezko ordainez, ez dut aldatu nahi, erabat iraungi ar-

teko tartearen faborea eginen diot. Dena den, berriak ez luke berehalakoan doinu bera, guri eta lekuari ohitzeko denbora beharko luke, izpirituaren xurgatzeko tartea; zenbait astez arrotza litzateke gure artean.

Korrokan, babesa adierazten dit. Bakarrik faltako zait zangoak barneratzea txapinen zorro epeletan eta orkatiletan gora igaten utzi abandonuaren eztia. Soinu banda gisa noiztenkako garbigailu-larsen goxoa.

Gorgoina

Munduak itzulika jarraitzen duen artean, konflikto basikoenak entretenituz, gorgoina aulki batean jarririk dago neska tipi bat.

Bost urte betetzen ditu gaur Maikak eta bilintxibalantxa dabil baratze zolan, zangoak ahal bezainbat luzatuz. Orain arte saiatu da nola edo hala oldarra hartzen, pusaka eta gorputza balantzaka, abiadura hartzeak eta egoeraren menperatze eskasak kilikak eragiten dizkio sabelean. Ez du deus gehiagoren beharrik, dena badu neska tipi horrek: hain da erraza. Dilindalan darabiltza zangoak eta gorputz gainaldea, batean gorago heldu nahian, bestean, atzeraka urrunago joan beharrean, berriro ere aurrera abiatzeko, adatsa airean.

– Hala! Bat, bi, hiru, lau!...

Belardiaren beste puntan, etxeko atarian agertu da osaba aldean duela lehengusina handia:

– Zatoz, Maika! Oraintxe abiatuko dugu marrazki biziduna. Denak jarriak gara eta zure zain!

Noizbehinka neskatoari ziztu biziak barna iraultzen dionean oldarra doitzen du. Laster gaina harturik, lorietan berriz ere gorputza orekaren mugetaraino makurtuz kementsu ekingo dio.

Libre da Maika. Segitzeaz edo gelditzeaz, nahi duenaz, eta horri ez dio lotsarik, bai kuraia bere izariko dozenaren heinean. Haize ufada bakoitzean askatasuna besarkatzen du, arnasaldi bakoitzean heltzen dio eta irensten erraietan oratzeko. Ez dio axola oinak lurrean herrestan minduko ote dituen, ez dio inporta saihetsetik edo gibeletik oldarra ematen dionak huts eginen ote dion, ez dabil galdezka sokei nahiko azkar heltzen ote dien, goregi ez doa sekulan eta gibelera egiteak ez dio axola, ingurukoen begi onaz axolarik gabe. Irabazteko ausardia. Galtzeko arrangurarik ez. Zentimetroak hartu arau lapurtuko dioten libertatea.

Goizetik arrats arituko litzateke bilintxi-balantxa, bizia gozagarriagoa egiten dion artean, aspertu arte, orduan neholako abisurik gabe hortxe berean abandonatuko bailuke gorgoina, irringarriagoko zerbaiten menturan.

Horrela segituz gero oin puntekin zerua hunkiko du laster eta ortzimuga jan lezake: xantza.

– Bat, bi, hiru, lau!...

Ator botoia

Egongelan ilunantza da, hormari bizkarrez jarri nauzu eta nire saihetsera bildu zaitut.

Sss! epel batez iradoki didazu hitzek ez dutela lekurik jada.

Desira loratzen doaneko unea da preziagarriena, hasi aurretiko gauza anitz bezala, gorputzak oraindik estaliak direnean, misterio kotsiarekin: ekaitzaren aitzineko lehen euri tanta lodiak. Luza genezake. Hazten utzi. Goxoki. Animalitateari eman gabe.

Zure espalda nirearen kontra. Atalez atal elkarrengandik hurbiltzen goaz, sabelak elkar juntatzeraino. Indartuz doan berotasun aurak erakartzen zaitu eta aldi berean erreserba kotsia eragiten dizu, ez lasterregi joateko enbeia.

Bizarraren latza eta hatza mateletan eta lepo xiloan. Zure eskumutur tatuatuan gora korapilatzen zait eskua, marrazkien itzulinguru dantzariei jarraikiz, beso barneko azal leunean uhinak sortuz. Nire ile ihaurriari barna helduz, tinkatu nauzu, banatzen gaituena gehixeago murriztuz. Ezpainak bildu dira, mar-

txuka urtsu erdi irekiak, dantzan jartzeko elkarri itzulika, doi-doia banatuz berriz elkarri eusteko.

Asmatzen dizkidazun atal iradokiak, oraingoz ez agertuak, jantzien zeharrean ferekatzen dituzu, arropak eskaini aukera anitzez baliatuz, erantziak ez izatekoaz preseski, eta aplikatzen gara orain biak posibilitate guzien ustiatzen, atorrek eskaini arteken mugetan nahiz gerria azpimarratzen dizun uhalaren hegitik, atzamarrak izerditan galdurik errain-bihurguneetan behera.

Arnasa hasperen etengabea bihurtu zaizu, hantua; begi gurutzada batean, lausoki, zure tirria igarri dut, hazten sentitu, gorputza ikaran jarri dizu.

Izterrean gora, mahoizko oihal lodiaren pleguetan galtzen dabil esku bat, beste batek azpimarratzen du ipurdi mazela baten kurba, irmoki. Lepoan behera jausten zaizu ene hats kaldatsua, izpiritua lurruntzen zaidan artean, promiskuitatearen sari.

Saihetsetan gora eta beheraka, gero eta salbaiago jarriz, ahur bat lerratuz doa belusezko papoko isurian, bular ertzeko arroilaraino ausartuz, titi bat kausitu arte, punta jasoa laztan-kilikatzen luzatuz ehunean zehar.

Gaztetako suhartasuna berpizturik, oihalak ditugu oro traban. Hitz korapilatuak, nehork entzun ez ditzakeenak, intziri nekez itoak, geroagoko bertigoen promesa, zeta zimurtuaren harrabotsa: bizkarra hormatik altxaraziz, zure gurari salbaiak inarrosi nau.

Lepauztai hegia ausiki dizut, erreserba guziak xitxifrikatzeko. Atorraren peko aldetik ausartu zira...

Txak!

Lehen botoiak saltatu du. Ezpain bildu intzirigile umelek diote gaineratekoa ere desegiteko manifestua.

Geroxeago, maitasuna eta desira iraunarazten dituen haragi amodiozko otoitzetan galduko gara. Eroriko gara elkarren altzora, sasi miatzera, ezpain krematsuen nahiz eztenen dirdiraraztera, noizbait alde irristakorrenetara lerratzeko piku leunak boteretsu konkistatzera, kemen eta arteziaz, ihintzaldian garaile amaitu arte, ez hain fida orain artekoa gailentzeaz, bai oraintxe artekoa gabe ondokoa geza litekeelakoaz.

Igandeetako itzuliñoa

Igandeetako bazkari oparoen ondotik piztu enbeia bati nekez dakioke buru egin. Maiz, holakoetan erromesaldietako gogoak pizten dira, aktibitate sinplearen baita utziko digun oroitzapenaren bitarteko asteburuaren luzapena izanen den zerbaiten egiteko. Autoak bidea hartu du, bere baitatik bezala, xenderaz xendera, bide juntaz junta, alderrai.

Autoan sartu bezain laster, Baionatik jalgi eta Miarritzeko hondartza eta karrika burgesetara jotzeko gogoa izan dugu tarteño batez: bitxiki sekulan ezagunik gurutzatzen ez den hiri honek eskaini ostatu atipikoetan luzatzeko hondar zuhaila alferki korriturik. Horren ordez, bestaldera jo dugu eta pentze berde etxez titakatuei bista utzi diete hiriguneko dorre eta semaforoek. Nafarroa Behereko lurretara joan gintezkeen, ez baikara sekulan aski usu joaten sorleku ingurueta-ra: ondoko aldian.

– Hara! Ikusi duzu? Oreina zen.

– Ez naiz ohartu.

– Ze bista txarra duzun! Basahuntza baino handiagoa zen. Han! Han! Arbolen artetik! Ikusten?

Bideak etenaldi aparta hitzematen du, barne eta arimen bizi eta indar berritzea. Inkontzienteki goaz, bidegurutze bakoitzaren nahierara, oraindik ez dakigu nora. Hautuak egin behar dira. Erreka bazterra. Onddoketa. Martxuka beltzen bilketa. Belardia. Txori arraroen bizilekuak. Sasi artean eraiki abar ttattola. Musker edo kakamarlo ehiza. Etxera zerbait eraman beharko baita, anekdota bat ukaiteko doia. Auzoei, lankideei kontatzeko balentria zenbait.

Ororen buru, afaltzeko gaztaina zakutara batekin itzuliko gara. Etxe saihetseko pikondo hosto pare batekin egostekoa. Besterik gabe.

Aldi oro sendaturik itzultzen gara, goizegi, halabeharrez, gibelera eginik bidea joatean bezain arin, luzaz, ostiralera arte bederen, iraun beharko duen goxotasuna xurgatzeko itzuliñotik. Segurtatua da: aste osoan iraunen digu gaztaina gustu oretsuko saudadeak.

Gasna

Lanetik tarrapataka haurrak besapean sartu bezain laster, usaiakoak egiteko artetik, irratia piztu nuen. Programa arrunt horietarik bat zen, noiz eta ere aktualitateko gaien inguruko tertuliak pasatzen baitituzte. Egun hartan Ipar Euskal Herriarentzako lurralde ezagupenaren gaia jorratzen zuten luze eta zabal, ngarren kapitulua, proiektu edulkoratu zenbaiten haritik.

Belarri batez solasak entzuten nituela, haurrak utzi nituen, bata telebistaren aitzinean letargiko nahiz panpina armada baten borrokarako lerroak antolatzen, sukalderaino joan nintzen, hozkailura zuzen, ahamen zerbait kausituko nuelako esperantzan, afari ordu arte irauteko doia eginen zidakeena. Hortik zen gasna puska batek afera eginen zuelakoan, zaska batez xafla bat atera nion. Sentitu nintzen Itxaro Bordaren *%100 basque* eleberriko pertsonaiaren gisan, zeinek denbora akabatzen baitu gasna jaten, kolesterola tasa zapartaraztekotan, eta gogora jin zitzaidan ene aitaren gasna.

Ondotik iragan nintzenez, bi egun lehenagotik galkatua zen garbigailua martxan ezarri nuen eta sukaldean finkatu barazki xuritzen. Irratiaren bolumena igo nuen, mekanikoki, aireratu solasek *Kukulu* gasnaren efektua, hau da nonbaitik jin ardi torropilo munstroen esnez osatu produktuarena, eragin zidaten.

– Iparraldearentzat hitzordu ezin garrantzitsuagoak datoz, lehenik ezagupen instituzional batena eta horren haritik eskualdearen garapen ekonomiko eta sozialaren aldeko erabaki estrategikoetan esku hartzea.

– Ezagupen hori, Iurraldearena, alternatiba ona dea?

– Egoerak eskura jartzen digun aukera da, hiru diputatuk, bi senatarik, hirurogeita hamazazpi auzapezek sostengatua, herri mugimendu eta eragileek adostua, eduki eta bide orri garbikoa...

Mastekatzen nuen, ñaka-ñaka, ene etxe-gasna zatia. Azken denboretan etxe-gasna erosteko indar berezia egiten nuen, mahai azpian erreserbatzen diren horietarik erosiz, pertsona fidagarri eta adituentzat begiratuak, ez gaurko hotzaren eta garbitasunaren katearen arau guziei jarraikiz atondua segurki, baina espantagarria, ahotik ezin utzia, gustu deskriba-

gaitzekoa. Normalki igandeetako apairu bukaeretan mahai erdian ezartzen dudana, bakoitzak bere aldi ganibet xorrotx batekin, bazterretik hasiz eta erdi-bihotzeraino iraganez atera diezaion xerra bat papera bezain fina, eta denbora hartuz eta preziatuz goza. Hala irakatsiak izan baikinen eta erritualak dastatzen ari ginenaren gustua hobetzen ere baitzuen, oroitzapenetakoari egite handiagoa emanez, haurtzaroaren samurtasunez jantziz. Gutxi hartuz, argia trebesean ikusteko gisa eta urritasun horretan probetxu gehiago ateraz.

Luzaz jan izan ditut gasnak trumilka, zernahi eta edozein tranpakoak. Gure etxeko gasnen parekorik ez dut sekulan kausitu. Artetan, diru puska xahutu izan dut ustez balioko zuen zenbait ekoizpenen etxeratzeko; aitortzen dut noizean behin gertatu izan zaidala hurbileko zerbaiten atzematea, ordukoan kasu. Ahoraturik, gustua kasik-kasik berdina iritzi izan nien batzuei eta nire baitan barna inarrosi zituzten mila sentimendu: aita-amen larderia, gure bazterren ederra larrazkeneko eguzkitan, iraganeko bozak, seguritate eta betetasun sentimendua, iragankortasun larrigarria, haurrideen aingeru aurpegi ahaztezinak, naizena eta jada ez naizena, herria, lana, aldi eta egunen ara-

bera baikorragoak edo ezkorragoak, niretzako egiak eta mundua halaber marrazten zizkidatenak.

– Aita, emazu oraino kantua! Bai! Badakizu, olé olé!

– Zuek ez dakizue engoitik?... Mesdames, voilà du bon fromage, voilà du bon fromage au lait, il est du pays de celui qui l'a fait!... Et celui qui l'a fait...

– ...il est de mon village, alala, voilà... –aritzen ginen heiagoraka denak batera.

Dena izanik ere, ez niezaioke gasna jateari utzi, naturaren kontra joatea bailitzateke; zaila bada ere pseudo-gasna industrial geza gusturik gabeko bekatu mortaletarik ahal bezain urrun egotea. Alta, hauek ere norbait biziraunarazten dukete.

Ene gasna puskaren mastekatzea bukatzen nuela, sukalderaino heldu ziren irratiko emanaldiaren zenbait oihartzun eta nire baitaraturik berriz ere gogoratu zitzaidan lurralde istorio hori dena. Emankizuna bukatzear zen, ekimenaren hitzordua oroitaraziz. Lurralde proiektuaren sostengu plataforma mistoko bozeramailearen adierazpenak entzunarazi zituzten bukatzeko: euskaraz doblatu behar izan zituzten, programan ez zitekeelakoan doaike. Kontsentsu kontuak segur aski. Tira, detaileak. *Babybel*.

– Le Pays Basque mérite une reconnaissance institutionnelle avec les moyens propres qui lui permettraient de faire face aux défis sociaux et économiques et d’assurer son développement mais aussi d’affirmer sa spécificité culturelle, notamment par le soutien à la culture locale, de surcroît si riche et dynamique, et la revitalisation de cette langue millénaire...

Oskol hutsak, ele zuriz gainezka. Narkotiko purua. Askaritakoaren hondarra, ez zena ikaragarria baina bere afera ontsa bete zuena, berriz hozkailu apalean ezarririk nire egitekoetan segitu nuen.

– Zatozte hona mahaiaren ezartzera!

Ortzia uda minean

Bazuen zenbait egun jada, aro iragarpenetan ziotela ortzituko zuela: deus ez ageri.

Agorrileko sapa egunetan ba ote da preziagarriagorik ilunpetako loaldi kuluxka baino? Bazkalondoan gorputz nagitu hezeek galdetzen dute, deika atal guzietatik, bular artetik zirriztan lerraka doan izerdi tanta bakoitzean.

– Badakizu ikusi nuela Patxiku astapito hura?

– Patxiku? Ez dugu orain aipatuko?

– Ez. Utz dezagun bere lekuan. Astaputz hori. Likefiatu ninduen!

Ilunpetara sartu ondoan, auzirik ez, harrabotsik ez, goizaldean tiutaka zebiltzan txoriño guziak gorde dira beroak mututurik trunko zahar zenbaiten zulotan barna; gisa berean gaude ganbaran. Iruditzen zaigu hor uda mineko galdak etenaldia daukala. Leihoak hurbilduak dira aspaldian; halere kanpoko argi itsugarri eta giro jasangaitzek gela osoan erradiatzen dute, utziak izan zaizkien leihoen arteko arteka meharrez

baliatuz. Balirudike errainuek guda hori galdua dutela, zur zahar astunen harresiari esker. Amets.

Lohasmatik atera zaitu ufada batek inarrosi portalearen lokarriaren kriskitinak. Haizea altxatu dela badirudi. Argia amatatuz doala sentitzen duzu. Lotarik atera zara jada, lepondoa umel eta burua pisu.

Lehen xorta bat entzun duzu, baina ez zara oraino sobera segur, leihoko zur irakinaren kontra lehertu dateke, dudarik gabe. Geroxeago, lehertu dira gehiago.

– Erna zaitezte –dio ama ikusezinak, behealdetik iraganez, haurrei mintzo zaiela.

Sorta larrien artetik, pla-pla, abusatuz doazenen algarek baizik ez diote ihardetsi.

Logelan barnaraino hedatu da usain partikular hori, ontsa ezagutzen duzuna, ekaitzaldiaren aitzinekoa. Egarriz eta ur deika lur egosiak aireratzen duen urrina, lehen xortek hunkiturik harri eta zur goriek zabaldua, horrela euri gehiago deituko balute bezala: oda bat. Usain suabea da, lur bustiarena: uharraren promesa, barealdi eta freskoaldiarena.

Euri xortak emendatuz joan dira. Teiletan dantzan dihardute orain, melodikoki: sinfonia laster polifonikoa bilakatuko da, beste euskarrien gainera ere gisa berean erortzen doakeela, autoaren gainera, txirrindula-

ren txilintxaren gainera, baratzeko balde hutsaren zolara, eta zure baitan barnera isuriz.

Hala badirudi ere oraindik ez da epeldu giroa. Ilunpetik ahots nagi bat altxatu da:

– Freskoago da, ez? Janen nuke izozki bat.

Esku ahurrean

Afari erditan, sukaldea eta jangela banatzen dituen barraren gainetik burrunba ahul bat heldu zaigu lau familia-kideenganaino. Biziduna eta biziaren garraiatzaile zintzo eta trebe, smartphoneak zerbait dio, abisu zenbait dakar, frenetikoki.

Minutu batera telefonoak erregularki dardarka segitzen duenez, senarra altxatu da mezuaren ikusteko, familiako beste hiru kideak mahaian utzirik; ardura horrelakoak alegia deusez egiten dira, sukaldean ahantzi entsaladaren bila joateko aitzakiarekin adibidez, ahalke punta batekin. Hantxe makurtu da, fereka arin eta zaluan pantaila beltza desblokeatu du, hitzak azalaraziz, notifikazioa zabalduz. Orduan zirrara eta interes disimulatuekin zenbait berriz jabetu ondoan, itzuli da emeki jartzera, deus gertatu ez bailitzan. Ez naiz ausartu telefonoak zer zioen galdetzera. Agian beldur batengatik: auskalo, *bestea* balitz, zer? Agian nihaur parte ez naizen komunitate erituetan ez sartu nahiz. Segi beza afariak aitzina, hobe.

Gailuaren dardarak berpiztu ditu ohiko sentimendu kontrajarriak. Hartzailearentzat interes erlatiboko informazio zenbaiten jasotzearen atsegina; edo ez. Gainerakoentzat baztertuak izatearen grina. Konpainian izanki, erantzute eta atentzioaren desbideratze horretan preseski bailitzaiguke gerta kexaren oinarria, beste hainbatetan nola: apairu denbora mugikorra atxikitzean menean, bilkuran ateratzean zorrotik tenorea begiratzeko estakuruarekin, haurrak jostalekuan zaindu ordez eriak kilikaka jartzen dizkiogunean, bikotearen egunaren kontaketa belarri bakarraz jarraitzean Facebookeko estatus aldaketa burutuz. Zein da orduan ingurukoen lekua, bizi interesgarri hori zeinen parte ez baikara, jendetasunaren muga?

– Ama, ez dut nahi, ez da ona –erran du Maikak, tipienak, militza ederrak.

– Otoi! So egiozu Juleni! Dena finituko du! Dena jaten baduzu, izozkia ukanen duzu –negoziatu dut ene ama salduaren rolean.

– Buark... izozkia karameluarekin da? Nahi dut orain.

Smartphonea. Lauki luze beltz horrek, leiho baten antzekoak, ireki orduko zerua bezain zabalak diren aukerak eskaintzen ditu, galaxiak antolatzeko posibilita-

tea eta bidenabar selekzionatzeko. Gaur, bizi-anitza baino, anitz bizi ukaiteko parada du luzatzen. Urruna zaigu jada garaia zeinetan zoratzen baikinen SMSaren izari telepatikoarekin, tupustean heltzen baitzitzaizkigun, denbora eta distantziak mendratuz. Gaurkoak dena egin dezake, ahalmenez josirik, ahal ez duguna gure ordez nahiz egiten dakiguna eraginkorragoki burutu.

Smartphonearekin dugu maitatzen, lan egiten, antolatzen, suntsitzen, kontsumitzen. Alta, arin eta espontaneoa da, tronpakorra bada ere, eskaizko irribarrez, hashtag kimeraz, orduaren araberako arrakastaz, sentimendu merkez. Lagun dezake, nahas dezake. Elkartu nahiz bereizi. Tarteka ingurukoei lapurtzen gaitu, tarteka ihesa ahalbidetzen, ubikuitatea baimentzen, boterez hantzen. Haratago errealitatea onargarria zaigunera doitzera garamatzake.

Plastikozko leihotxo soil beltza, Magritte jostakin aztoratzailearen obra batean nola, beti dudarazten gaitu dena, ez dena, izana, izena eta pertzepzioaren artean. Eskura dugu, ahurrean kabiturik, mundu bat munduaren baitan, mundura buruz eta mundutik kanpo, betan: gainerakoaren artetik hautuzko eduki eta jendeek osatu mundu zatia, ezartzen gaituena

zentroan, saihetsean, besteekin nahiz gabe, beti nor bere buruarekin parez pare.

Baina, hau ez da telefono bat.

Amen armairuak

Gure amen ganbaretako armairuen ateak ireki orduko aireratzen dira haize leun urrin eztiak eta izpiliku arrastoenak, zurak xurgatu liho olio garrantziotuaren usainarekin batera. Armairu eredugarriak izaten dira, oihal junta eta lerrokatu usaintsuz beteak. Apalez apal, gauza bakoitzak du lekua, erantzuki, akatsik gabeko leku eta arimen altxa-lekuan. Hauen aldean, ohea estaltzen duen manta xurail munttoak ere berarekin dakartza etxea atxikitzen dakienaren aztarnak. Dena da xuri baino xuriagoa –ez baitaiteke afera tipia–, plegu onean ezarria, itzal, mantxa edo gabeziarik gabea.

Eta zer erran suilardaz? Amek eta amen amek hainbeste denbora pasatu leku bereziez, nornahiren begi bistatik urruneko territorio esklusibo eta besteei dedikatzeko horiez? Sukalde saihetsean, hor daude kazola, tupina, zartagin eta mila botiga, pruntki jarririk zurerian behera gaizki lerrokatu iltzeetan zilintzo. Hantxetan, gela-erdi ilun eta freskoan, bestalde, apal gainkargatutan, nork daki nola, orekaren arauak hau-

tsiz, olio, gantza, kontserba, xingar puska lehorrak nahasten dira hortik ahantziak diruditen tipulen artean. Tipulak. Hainbeste txikituak, suilardan berean, xutik.

Suilardaren haraindiko atetik, edo, nola gerta, argia zuhur barnera uzten duen leiho hertsitik, baratzea zain daiteke, beti soberan pusatzen eta tuperretan finitu beharko duten barazki lerro xuxenen eremua, janlekua alaitzera beharko duten loreak nonahi isurtzen direla, kolore azukratutan, eguzki gorritan argi idorrez itorik.

Hauek ez dira deus amen esku ikusgarrien aldean: erreka, plegu eta istorioz beteak. Bokata egiten higatu eri konkor laztuen artetik agertzen dituzte tipula xuritzen egin piko aztarna zenbait, baita berek bakarrik jakin eta sekulan kontagai ez dituzketen zauri zaharren hondar ia ikusezinak, zeinengatik igandeetako mahaiak lore freskoz apainduko dituzten.

Gure etxeetako amak eredugarriak izan ziren, ganbararen eta suilardaren artean, naftalina jasaten ikasiak, baita iraultza frankoren altxagarri. Hauen oinordeko nahi gintuzkete, konformatzekotan herentziaren erdiarekin haatik. Klasearen ala generoaren ondorengoari zor diogun printzipioa?

Loak hartzen nauenean manta arteko epeltasunean, usu dut ametsetatik sentitzen esku latz baten fereka, begiak zabaldu orduko huts egiten didana, hobeki gogoratzea eskatuko bailuen.

Zilintzo

– Ez! Berantegi: jadanik hitzemana diot Eneritzi hartuko diodala.

– Goaita! Nik hartuko dizkizut lau. Txekez pagatzen ahal dizut?

Abendua heldu gabe hasia da urte berrirako egutegien baltsa, batak ala besteak berea saltzeko menturan, bakoitzak etxeko gela kopurua bezainbatekoa baizik ez erostekotan.

Ikastolako egutegiek, urte oroz trumilka saltzen baitira, ez dute deus partikularrik. Uste dut kasik betidanik ikusi ditudala eta beti berdintsuak, eta baliteke banalitatea izan dezaten berezitasun. Lau euroren truke, Euskal Herriko bulego eta sukalde zokoetan lekua atzemanen dute. Hor izanen dira, hor dute lekua eta erosten segituko da luzaz oraino. Azkenean, hozkailuaren ondoan, marrazki eta argazki apaingarrien artean ikusiko ez bagenitu, zerbait faltan sentituko baikenuke.

Haur denboran, ikusten genuen etxe guzietan gisa horretako egutegi bat, Euskaldun Gazteria elkartearen

urtekaria. Argazki eder batez apaindu kartoizko azala zen, erdialdean egunez egun hostokatzen zen orrixka bloke bat zuena. Urte osoan zehar, egun oroz, egunari zegokion hosto txikia kenduz biluzten zen eta momentu bat iragaten, zela zerbait ikasteko, zela denbora pasatzeko. Papertxo horretan zer zen xuxen idatzirik? Efemeridea (eguna, mareak, ilargia...) eta gero 'zerbait', izan zitekeena bertso bat, gertakari historiko baten oroitarazpena, irri istorio bat, baratzezaintza edo laborantzako aholku bat, errezeta bat: zerbait labur, ahal bazen praktikoa eta, erran dezagun, adin eta profil jakin batzuetako jendeei zuzendu edukiak, gazteagoek jostetan xahutzekoak.

Barnealdean etxez etxe edo eliza ateetan saltzen dira eta etxe guzietan izaten da bederen ale bat, nonbait dilingo, ardura sukalde txoko batean, supazterretako kez horitu hormetan marka uzten du maiz, kartoiaren itzal negatibo gisako bat gisuz tindatu paretetan. Batzuetan, sinesmenen arabera, zotal egunak markaturik daramatzate hilabetez hilabete, ez-usteen eta ez-beharren uxatzeko, natura menderatu beharrez.

– Hantxetan bada egun bat inguraturik. Zein da?

– Ondoko asteartea. Txikienaren urtebetetzea.

Hor ez balira, zoritxarrez behin nehor ez balitz agertuko hauen saltzeko, zerbait faltan egonen litzateke urte osoan, eta hor genituzke urteko egun oroz kisu itzal argia eta zintzilikari hutsa bistarako traba.

Bixkotxaren teoria

Astelehen goizez, lantaldea kafearen inguruan biltzeko tenorean, hitzik gabe mahaiaren erdian pausatu nuen bixkotxa.

– Egunon! Kafea martxan jarriko dut?

Aste hastapeneko buruek adierazi zuten, balantzaka, iradokizunari zioten onespena. Bakarrak erantzun zuen herabeki, jada gelaren beste alderaino iragana nintzela:

– Azkarra. Eta anitz.

Bixkotxa nihaurek prestatua nuen bezpera iluntzean, noski, nahiz eta ez arras kausiturik, komertzioan erosiak baino efektu hobea eragiten baitu beti. Jatekoak baino, barnean sartu dudan nihauren parteak baitu inporta.

Aitzinetik ez nuen ahantzi kafearen prestatzea, pastelaren laguntzeko, inkasean, idorra baitzitekeen, eta oroitu zitzaidan ere batek ez duela kafea soportatzen, dutea hartzen duela.

Momentua heldu zenean, denak bildu ginen gelan, mahaiaren inguruan. Eta orduan ez naiz gogoratzen

xuxen zein izan ziren oharrak. Zergatik? Segur aski orduan agertu zena izan baitzen jende multzo bat, nehor ez kanpo, nehor ez besteak baino zati handiago edo tipiagoarekin: jale bakoitza bere lekuan, bat eginik pastelaren biribiltasunean eta, aldi berean, batasun horretatik bakoitza bereiz puska banatan, denak hazkurri beretik elikatuak.

– A, enetako dutea prestatu duzu? Milesker.

– Zer gertatu zaizu? Pozoitu nahi gaituzu ala? –galdetuko zukeen Ilune ohiko zirtolariak irriz.

– Umm, goxoa da. Badu kanela? –galdetuko zukeen Anek, laster errezeta osoaz jakin nahiko duenak.

– Nik ez dut maite kanela –erantsiko zukeen Txomin murrukutunak.

– Bitxia da, iduri du ezarri duzula Ricard doia. Ala anis haziak? –ziokeen Ximunek–. Anis haziak ezkontzen dira edozein plateretan! Ohartu zarete?

– Baliatu nahi nuke bi pundu aipatzeko zuekin... –abia zitekeen Jokin pragmatiko maitagarria–. Aurtengo ildoetan kokaturik ziren bi ekintzaren inguruko pundua egin beharko genuke...

– Zaude! Ondotik eginen dugu. Ez duzue asmatuko Santi norekin gurutzatu dudan asteburuan... –holako zerbait erranen nukeen nik.

Ez nuen aurreko eguneko kexaldiaz barkamenik eskatzeko tarterik atzemanen. Araiz mezua ulertuko zen pastel zatien artetik.

Kafe xirripa bat, bixkotxa puska bat, solasez entretenitua, erronkarik gabe. Munduaren martxa zuzen lezakeen batasunerako ekimentxo goxoa.

Bixkotxaren teoria frogatua da lantaldeetan, auzoan, biltzarretan, klaseetan, eztabaidak piztu eta noiztenka aski pisuak bilakatzen direnetan, besteekin gutxieneko harreman goxoen entretenitzeko, girorik ez denean edo gogo gutxi, korapilo asko, bost erranalditan botatu direnean sekulakoak bi minuturen buruko damutzeko, konfiantza ezari eta paranoia guziei ateak zabaldurik zaizkienean: horietarik bakoitzean. Zoritxarrez, ala zorionez, batez ere nola edo halako joera amnesikoak direla-eta, nahiz haserretzeko jite kontrolagaitzak, maiz errepikatzea eskatzen duen prozedura da.

Horrelakoetarako da ona bixkotxaren teoria. Oroitarazteko funtsezkoa zertan den. Baliteke historian zehar, proiektu ederren eta kausituenek, beharbada bake hitzarmenek, aitzina egin izana deus gutxirengatik; agian matahami platerkada batengatik.

Orijinalite gosez denak munta dezake bere aldaki propioa efektu berdinarengatik, aukera mugagabeak ditu horretarako: txokolate ontzi batekilakoa, etxeko atun kontserba batekilakoa, garagardo sorta batekilakoa, nahi dena.

Autobusa

Goiz zohardia da, zerbait eder gertatuko dela iragartzen dutenetakoa. Heldu orduko autobus gaitzaren leihoetan haur ñimiño aurpegi alaiak lerrokatzen doaz, lepoa luzaturik so, espaloian zutik eta eskuak hutsik dilindan utzi gaituzten aita-amei behako loriatsu zozola luzaturik bizpahiru segundoz. Urrun dira jadanik: ateralditan doaz ikastolarekin. Autobusez.

Ez ginen hitzordua huts egitekotan, irakasleek argiki errana zuten, behar ziren pusken zerrenda helarazia, ahoz eta idatziz, batez ere haurrak horretarako programaturik: ez genuen ahanztea lortuko. Semeak oraino nekez irakurtzen du, baina ez baita motibazioa bezalakorik, deszifratu orduko gogoz zekien behar guzia, errepikatzeko gisan ondoko egunetan.

Eskuratu deskriptiboetan, egutegia itorik kausitzen zen berrogei bat helburu pedagogikoren zerrendaren aldean. Hortik gibelera jinen zaizkigunean, bost zentimetroz hazirik itzuliko dizkigute. Alabaina, gaixo irakasleak, itzultzean, seme-alabek kontatua batez ere ardaztuko da autobusez ibiltzearen eta lo zakutan

lo egitearen jenialtasunean, gainerakoaz detaile gutxi baizik ez baitugu jasoko.

– Ama, autobusa bikaina zen! Handi-handia! Amaiur nire ondoan zen. Polita da Amaiur. Eta nik lo egin dut gaineko ohean, badakizu! Andonik eguzki kolpea ukan zuen eta bero zuen beti, irakasleak ezarri zion krema usaintsu bat eta pasatu zitzaion. Zinema egiten ahal da oihal zuri baten gainean, badakizu? Egin genuen tirolina. Jan genituen zozizona eta meloiak. Elixabetek eman dizkit bi figurina, Egoitzek kilkerrei kokakola eman zien edatera baina nik ez e!

Hatsantu arte.

Ikas bidaiek urte anitzetan utziko die gustu azukretua, nehori kontatuko ez dizkiotenak: karamelu urtuak sakeletan, Allenderen sekretua, algarak, eltxo ausiki erraldoiak, azkura-hautsa zaindarien galtzerdietan, armiarmak ohepean, hondar beroaren leuna, erredurak, kidearen sorpresazko potta, lasterraldia lotegian ilunpeka, haur larru beltzaranaren gozoa. Oroz gainetik hoberena autobusa da.

Justuki han daude azkenak heldurik, txitak bezala txitategian bildurik, buru ilehori, ilegorri, kizkur baita leun, motosdun nahiz kalpardun, bihika irribarretsu euforikoak igotzen doan eguzkitan begiak erdi hetsi-

rik, zorionak matelak gorriturik, kezkatuagoak aitzinean edo aldean duten kideaz, txoferraren abisuez baino. Horrela da, sei urte dituzunean, aita-amengandik urrun eta irakasleen bizkar zoaz, ikastera auskalo zer. Autobusez.

Gorriak

Gure hileko gorien izenean, amen.

Maniobra eten behar izan nuen, hamar kideen lantokian zen open-space zabalaren erdian, nigandik hiru metrotara kokatua zen lankideak begiak altxatu baitzituen pantailatik eni buruz. Geldi. Fite: atentzioa desbideratu. Bost minutuz goaitatu beharko nuen berriz hasteko. Usaian bezala.

Ez baitute aldizkarietan zabaltzen diren adituen azalpen luzeek sekulan azaltzen nolako bakardadea den hori, azal dezadan bada. Hilekoena zientifikoki eta arrazionalki azal daitekeen fenomenoa baldin bada, esperientzia bat ere bada, bakarrik bizitzen dena, sentimendu eta sentsazio anitzen emailea, zein ez baitira partekatzen ahal: zikina eta okaztagarria baita. Eiki, iduri du hortaz mintzatzeko behar dela medikua edo jakintsua izan, gizona hobe naski, eta diskurtso neurtua landua garatu. Emaztea naiz eta ez dut medikuntza ikasketarik, bizkitartean, hilekoak ditut hilero, biziaren bosteko bateko kasik laurdeneko iraupena hain

zuzen, ez baita gutxi, ondorioz, dretxo dut mintzatzeko.

Bigarren fasean sartuak ginen, hots, bigarren egunean. Bezperan, astearte arratsaldez, zenbait eguneko aitzinarekin, ene uteroak erabakia zuen ene planoen nahasteko momentua zela, orduantxe. Lehen fasea abiatua zuen, zeruaren abisuarena, zeinetan ez baita gauza handirik gertatzen, batez ere, ni bezala, aitzinetik prestaturik doan emaztea bada, erran nahi baitu sindrome gaitza duena, larrua lehortzen zaiona hanpatu arau. Prestaketa: Doliprane, protekzioak, jantzi ilunak. Bigarren fasean, konplikatuagoa da. Uholde guria. Edozein mugimendu arriskutsua izan daiteke.

Fase honetan, usaian, aulkitik altxatuko naizen aldi oro, komunetara zuzenduko naiz. Garai hauetan ezin da dispositibo azkarrik gabe ibili: jainkoen mendekua. Bakoitzak estrategia eta material kuttunak ditu, praktika luzeen ondotik hautatuak. Zeren, artetik aitor dezagun, produktu eta jarrera ezberdin horien espantatzeko publizitate, artikulu, iritzi gehienak gizonen eskuetatik jasoak izanki, emazteei fundamentu gutxikoak zaizkigu espantatzen dituzten kalitate eta gaitasun supra-normaletako salmenta argumentuak: usaina, gona ala galtzak, tanpoiak ala kopak, migrai-

na ala goragalea, dantza ala ez, ederra ala azkarra. Normalki, diotenez, egun horietan, umore txarrekoak omen gara, arrazoirik gabe, horrela, burutik pasatzen zaigulako, hormonala baita. Egia errateko ez dakit: iduritzen zait lehen egunaren fasea iraganik, purga on batean sarturik, ez duela hainbesteko eraginik nigan.

– Fotokopiagailua ez dabil. Badakizu zuk?

– ...

– Ein?

– Nork? Nik? –erantzun nion ahalik eta molde naturalenean, hots zozoki–. Ideiarik ez.

– Papera badu alta. Konektika guzia gainbegiratuko dut badaezpada.

Enetako fase irringarria da bigarren hau, jite jostaria baitut. Aulkitik altxatu aitzin, diskretuki zakua zolaraino arakatzen dut, nonbaitik ateratzeko behar dudana, tanpoi bat, errazki gordea ahurrean, edo protekzio bat, nekeago dena ezkutatzeko beraz eri trebez trikotaren mahukan gora eraman behar dena lehenik, zakutik atera ahal izateko eta ondotik zalutasun eta trebezia berarekin galtzaren gibeleko sakelara lerrarazi beharko dena. Self-kontrol handia eskatzen du eta zorroztasuna, hari urdina ala gorria moztekotan zarelarik bezala. Erran gabe doa, hori guzia egiten dudan bi-

tartean, gorputz mugimendu oro kontrolatzen eta ahal bezain estuki koordinatzen dudala, bisio periferikoa baliatzen dut open-space osoa barrandatzeko etengabe, maniobrak irauten duen artean, segurtatzeko nehor ez dela ohartuko egiten ari naizenaz.

Gero, zakutik atera eta beharko da galtzako sakelan ontsa sartu, azantzik gabe beti ere, eta zabal-zabalik ezarri, ez baita iragarri behar, egon behar du ahal bezain leun sakelan, ez paketa handi bat bezala, orduan edozeinek ondoriozta bailezake-eta zer den altxatuko zarenean komunera buruz joateko, bere tesia di-da batean konfirmatuko luke: harrapatua.

Sekulan maniobraren erdian, plastikoa purtzupilkatuz soinu erdi-audible bat probokatuko banu, berehala bere horretan etengo nuke lan guzia. Stop. Begirada bat gurutzatuz gero edo inpresiorik txikiena izanez gero norbaiten atentzioa deitu duela azantz edo mugimendu batek: bi aukera. Lehena, adibidez, mokanes poltsatxo bat ateratzea eta, hor bai, hor egina ahala mugimendu zabalekin eta harrabotsekin inarrosi, mokanes bat hartu eta zintzatu, mafrundi izugarria izanen banu bezala: denak ohartu dira mukia trabatik kendu dudala eta jarraitzen dudala ene lekuan, normal-normal. Bigarrena, batez ere negua ez bada, za-

kutik atera txikle, txokolate, goxoki edo dena delakoa eta ozenki zuzendu inguruko lankide guziei heiagora batean:

– Nork nahi du bat?

– Milesker, ez.

– Nik bai, gogotik.

– Zatoz xerka! –erabakirik ez aulkitik mugitzea, lanjerosa baita ene egoeran.

Kito, desaktibatuak dira susmoak. Maniobra berriz abiatzen ahalko da, deus ez balitz bezala, hortik bost minututara.

Erran gabe doa, hori guzia errepika dezakegula zazpi, zortzi, hamar aldiz egunean zehar, erosotasun premia eta beharraren arabera, hots norberaren arabera, bulegotan, ostatutan, saltegitan. Gehitu behar da ordurako lanaren erdia baizik ez dela egina: behin materiala ontsa sakelaraturik, sala luzera osoan trabeskatzera behartua baita aldi oro, natural, xut eta zalu, normal, hots korapilatsua da.

Hortik landa, betiere zainduz harrabots susmagarririk ez egitea komoditateetan, biziari aurre egiteko dugun molde ludikoari segida ematen ahalko diogu neholako trabarik gabe eta komunetan iragan zenbait minutu –gehienik hamar–, adibidez produktu urdinaz

baliatuz, zirristan darigunarekin zilo zola ubel eder batez janzteko. Produktu urdinik ez bada, imajina daiteke psikopata eskizofreniko baten krimen eszena edo beldurrezko film horietarik baten remake bat. Irudimena askatzea libre eta ongi etorria, sentsazio deseroso umela haizatzeko.

Berrogeita zortzi orduren buruan, laugarren egunetik goiti, errutinan sartzen ahalko naiz. Galtza xuriak janzten ahalko ditut. Patuari besagainka. Beti adi, halere, istripu bat fite gertatua baita.

Maniobra eten nuen. Pareko lankideak hiruzpalau segundoz behatu ninduen, geroago leihotik begiratu zion hortxe pausaturik zegoen hiri-urtxo inutil horietatik bati, geroago ur zurrupada bat edan zuen eta itzuli bere ordenagailu pantailara, artetik jakinaraziz:

– A!, ez dizut erran: Ziburukoak deitu behar dituzu.

Betidanik kausitu izan zidan alde biziki zaintsu bat, sustut egun zenbaitzuetan, jakin gabe jitearen, kafearen ala ilargiaren gain ezarri behar ote zen kontua: altxa, jarri, moztu, oihuka galdetu gela osoari ea txiklerik nahi duen baten batek, noiznahi esku-zakua zolaraino iraultzea. Azken hori ene jite desordenatuari

egozten zion. Denboraz xuhur zebilenez, zereginari berriz ekin zion, besterik gabe.

Karrikaren bestaldean

Krudelkeria atseginetara erori nintzen, eiki; hain zen tentagarria.

Egun erditan, aspaldiko partez, elkar gurutzatu genuen, nor bere tropekin, bakoitzaren bizien bilakaeren adierazle eta egin bideen lekuko. Ustekabean, karrikaren bestaldetik iragan zinen. Keinurik gabe, hitzik gabe, harrotasun bapore artetik. Batak besteari ez genion behakorik luzatu. Zeren errateko? Holakoak dira ohekide ohien arteko topaketak.

Zertan ginatekeen beste gisa batez gertatu izan balitz dena? Ausart nadila: berdin zait jada. Sekulan maitatu izan baninduzu, dagoeneko aspaldian ez zintudan aiher.

Horra non, nonbaitik ere, ostatu berean sartu ginela eta leku usaian nekez betea, hertsiegia bilakatu zitzaigula. Sustut zuri. Kilikatu ninduen zure elekatzeko tirriak eta ez nion luzaz eutsi ahal izan. Gauza gutxitarako alabaina; batez ere hurbiletik preziatzeko zure begietako zauria, bi erantzunen artetik behako beltzek agertu pozoia eta politeziaz luzatu solasen ha-

rira, korapiloz korapilo, hitz trabatu bakoitzaren atzetik aireratu usain berezia, mespretxu eta jelosiaz kargatua. Jubilazio puntu bat eragin zidan, nork bere zorionaren eta betetasunaren oihartzuna, jada mendekuarena ere ez zena. Erdi totelka lerrokatu zenituen koplek bitxiki sonatu zuten eta ni poztu. Onartu beharra daukat, ederki moldatu zinen itxura ez galtzeko arte delikatu eta nekean.

– Lan berrian nola moldatzen zara?

– Badoa. Ez nuen sekulan asmorik ukan ene burua lurperatzeko aurreko hartan, badakizu.

Ez nuen indar partikularrik egin, egia, zure bakardade momentu horren arintzeko. Bai, ozarra izan nintzen, erran daiteke futitua.

Sartu bezala, atera ginen noizbait ostatu tipiegi hartarik, eta ez zitzaigun ez bihotzik erdiratu, ez haserrerik piztu, ez deus.

Baiki, plazer handia zure berriz ikustea.

Zoriona

Doi-doietarik heltzen igar daitekeena da. Nihaurek ez nukeen erranen horrela helduko zitzaidala, holako gozamen bat-bateko eta erabatekoa.

Besaulkian urtzen noa, hasperen batean, leihotik soa galdurik.

Noiz eta, justu xuxen, bi oren eta erdiz bakar-bakarrik egona bainaiz, ardura ez gertatua. Eta aspaldian ez baitzitzaidan gertatu garbiketa egitea etxean, bi oren iragan ditut mustuka higatzen. Ez ditut zoko guziak altxatu eta errautsak uxatu azken izkinaraino, ez, ez... Baina inork ez nau nire lanean moztu, ez da telefono deirik izan, ez haur mukizurik marrumaka, nehor ez atean... Bi oren bakean. Eta, gauza arraroa: ez nukeen beste nonbait egon nahiko.

Egia nekez konprenitzekoa dela arratsaldea bazter torratzen ematearekin kontent gerta nadin. Bat baino gehiago entzuten dut itotzear: biziaz baliatu behar dela bururik hautsi gabe, aisialdia ez dela horretarako, gaizki antolatua edota burutik joana naizela. Beste anitzek ez dute ulertuko nola posible den gainditua

izatea hainbesteraino non, tarte bat libratu orduko, etxeko lanei heltzen natzaien. Badira eta gauza inportanteagoak: mundua, gerla, Monsantoren desmasiak, bake prozesua, ekonomia, liburu bikain berriki publikatua, merkealdiak Galeries Lafayetten...

Preseski ez da garbiketaren kontua izan, kronologikoki ondotik eta logikoki ondorioz gertatua baizik.

Arratsaldea bukatuko dut holako betetze sentimendu bitxi baina erreal batekin. Gogoa arin, nire post-it-ean zen azken zeregina marraturik, gauzak oro leku eta estatu onean daudela. Egongelan zain dut atsedenerako taula-gaina, eskainia, leher nadin han erdian, eszena bakarrean sofaren zabalera osoan ene burua heda dezadan lau patak airean, zinkurin libratzaile batean ihalozkatzeko, arima haragitik bereizten doakidala, gorputzaren trabak gainditurik gozamenera heltzeko.

Zoriona ez da garbiketa egin izana, ez eta deus egitekorik ez ukaitea. Ez da zoritxarrik ez izatea bakarrik. Ezin da poza soilari mugatu ere ez.

Zoriona, derrigorrik, urgentziarik, obligaziorik ez ukaitea da, denboraz batere arrangurarik ukan gabe bizi ahal izatea, laburki bada ere. Istant hori da, zeinetan deusek ez zaituen beste zerbaitetara akuilatzen,

behartzen, zeinetan deusek ez duen premiarik, arnasa har baitaiteke eta gogoa alhan utz funtsik gabeko detaileetan. Urostasuna segundo ahurtara bat duzu zeinetan ez baitzaitu ezerk erretenitzen, erreprimitzen. Ez da ez aitzina ez gibelera behatzeko arrazoirik. Hor egon zaitezke lasaiki, dilindan, nehora lerratu gabe. Oreka puntuan kulunkan.

Laster telefonoak joko du buruhauste zenbait ekarriz, ez bada ateko txirrinak ene loeri gozotik inarrosiko nauela: dena suntsitzeko.

Invizimals

Semea Invizimals berri zenbaitekin etorri da gaur etxera.

– Begira, ama, Allendek kanbiatu dizkit bi hauek erredola batekin.

– Biba zu.

– Istantean emanen dizut zafraldi bat berri hauekin! Banoa besteekin juntatzera. Ekipoak berriz egin behar ditut!

Haurrak ginelarik, futbolarien Panini pegatina bildumak edo kantari zenbaitenak egin ohi zituzten haur batzuek. Burgesak irizten genien. Bilduma osoak biltzen zituzten kaier junta eta koloretsuetan; besteok ahoa zabalik. Panini etxeak futbolariekin abiatu lana deklinatzea ez du oraindik amaitu: pokemon, dinosaurio, printzesa, invizimals, nik dakita.

Hastapenetik, semea eskuetan karta horietarik dozenarekin begiak dirdira etxera sartzen ikusi orduko, ulertu nuen ez zela txantxetako kontu bat, nik ez nituela ezagutzen, baina gaitzeko garrantzia zutela bideo joko batetik atera kreatura itsusi irudi horiek.

Biharamunean berean, haurtzaroko frustrazioa zelaeta, lerratu nintzen pasio horretara harekin batera.

Laster batean obsesioa bihurtzen da, hasi eta bukatu artean ezin utzia, misio garrantzitsua bilakatzen da bilduma osatzea eta bakerik ez da izanen azken bineta lortu arte: mutikoarentzat biziko lehen misio garrantzitsua. Gaixoak baleki amaierarik ez duela, azkena ez duela sekulan lortuko, bihotza apurtuko lioke; ekoizlearen bihurrikeriarengatik, elementu batzuen arrarotasunarengatik, zenbait figura gehiago asmatuko baitituzte, hozka bat gorago gertatuko da beti helmuga. Gisa bera baleki sei hilabete gabe beste kolekzio batera pasatuko dela. Anartean, zirrara ñabardura guzietatik iraganen da: poza, kuriositatea, inbidia, kolera, beti ere ilusioa nagusi.

Egunez egun, eskuratu bineta bakoitza gainerakoei juntatuz joanen da, pauso bat gehiago, hurbilago bukaeratik. Bihar berrantolatuko ditu, berriz bilduko, ondoko egunean ekipa berriak eraikiko, munstro berriak irabaziko nahiz galduko, partida berriak jokatuko, trukatuko besterik gabe, lagun arteko konparaketa kualitatiboak nahiz kuantitatiboak eginen, liluratuko da superbotereak aurkitu arau, maiteminduko ipurtargi antza duen mamuaz. Ad libitum. Urrats bakoitza

aitzina egitea izanen da, damurik gabe sekulan, ez eta bildumaren osatzeari uzten bazaio: utziko delarik ere erabakia izanen baita, hastea, jarraitzea eta bukatzea bezala.

Noski, diru doia xahutzea dakar, halere, aitor dezadan, ene plazera ere bide beretik dator semearekin jostatzeko estakurua eskainiz. Eta zer deabru! Ekimen polita da! Indartsua eta iniziaziokoa, ororen buru deusetarako balio ez izanik ere: helburu bat ematen du, irakasten du tematzen, eskura diren baliabideekin estrategiarik puntakoenak garatzen, joko arau surrealistekin jokatzen, testuinguru aldaketei ohitzen. Balioko diolakoan nago: berantago biziari ihardukitzeko, sustut, adibidez, euskalgintzan lan egin eta iraun beharko balu.

– Ama, zauri, prest naiz partidarentzat!

Ontsa gogoan badut, bart irabazi nion suzko elementua; hau jokatuko badut dragoi batekin, normalki ez dit kalte handiegirik eragiten ahalko eta horrela gainerako leinuak babestuko ditut, faltan dudan arroketako pup bat irabazten saiatzeko geroago.

Irakas-geletako aipuak

Fantasma anitzen iturria bada, irakasleen gela, nonahi, edozein eskolatakoa izanik ere, berdintsua da eta, zer nahi pentsaturik ere, han gertatuak ez dira beste mundukoak. Amultsuak ere badira.

Beti ordutegi berdintsuan baliatuak dira, klaseak hasi baino doi bat lehenago edo bi klaseren artetik, eta solas biziki arrunten lekuak izaten dira.

Badira irain batekin edo hitz itsusi zenbaitekin hasiak. Noski, euskal irainen hiztegi osoa kokatzeko aukerak eskainiak, klasikoenetatik pipertsuenetara:

– Mekauen, ze hotza goiz honetan!

– Debruasarbalakio, ez da gehiago paperik fotokopiagailuan! Nork du beti hutsik uzten?

– Ze puñeta! Ez da nehor bulegoan gaur ala?

– Talde horretarakoak? Kuialili banda!

– Kaka, ahantzi dut ene USB gakoa!

– Fateferafutro, inprimagailu astapito hau sekulan ez dabil behar orduan.

Badira zintzoak direnak:

– Uaa! Ongi jantzia zara gaur!

– Nork nahi du kafe bat?, bixkotxa bat?

– Klase biziki ona egin dugu X taldekoekin e! Kontent naiz!

– Politak dira zure zapatak. Non erosi dituzu?

Batzuk zernahiz hitz egiten dute salbu lanaz:

– Ikusi duzu bardako partida?

– Ez, Canal-eko filma barda: nüla zen.

– Nork luke gogoa maskaradaren ikustera joateko?

– Afari bat antolatuko bagenu heldu den astean?

Badira galdera existentzialak:

– Nork du bere kikara garbitu gabe uzten aldi oro?

– Nori zen kafea ekartzea?

– Bukatu duzu laster fotokopiak egiten?

– Uf, baduzula idazlanik zuzentzeko oraino!

– Zer egin duzu azken egunetan zure goi mailako taldearekin? Errekupera dezaket?

– E! pssst! –ahapetik kokotsez masa horretan zaren sarkina seinalatuz–: nor da?

Hots, nonahi agiturik, giro bera da, erranaldi berak, jokamolde berak. Jendea joan-jinka ari da, txandaka, momentu labur batez den bezalakoa da, irri egiten du, elkar sostengatzen du, zerbait partekatzen du. Edo ez. Ez da egiazki lan egiten, deus frogatzen, deus eztabaidatzen edo erabakitzen, zeregin komun

tipiak burutzen dira, azken minutukoak; mundua berregiteko presiorik gabe alde humanoa agerian utz daiteke.

Bat-batean, txirrina birtual batek jo duke, ez dakizula nolaz eta nora, denak desagertu baitira, bakardade eta isiltasun ikaragarriak jabetuz gela zabalegiaz.

Galdua

Laffitte karrikaren erditsutan neska-mutil gazte pare bat hurbildu zitzaidan, helbide bat eta eskuz zirriborratu mapa zeramatzan paper puska higatua brauki sudurpean zabalduz. Egon nintzen zuzentzekotan, jendetasunak eskatzen dituen gutxieneko konbentzioak ahantzi baitzituzten. Agur, barkatu, lagun gaitzakezu? Antzeko betegarriak hots. Horren ordez, seko galdetu zidaten:

– Non da Saubiole karrika? –galdetu zuen mutikoak hats hartze bakarrean.

– Galduak gara, arras. Laguna deitu dugu baina ez du erantzuten–gehitu zuen neskak tarrapatan–. Bi oren ari garela Baionan itzulika.

Begiak gorrituak zituela iduritu zitzaidan. Zainetan, net.

Irriz karkailaka hasi nintzen, gaiztakeriarik gabe, egoera absurdoa iduritu baitzitzaidan. Saubiole atzemangaitza da, karrika bastarta, potretik gabekoa, existitzen denik ahanzten baita, baina halere... Barre artetik erantzuten hasi nintzen, ez nituelako gaitzitu

nahi, eta tupusteko euforia ez baitzen lotua momentuko egoera soilari. Domaia zitekeen oraindik gehiago korapila zitezen. Gogoak ihes egina zidan beste garai eta lekuetara, non zinez galdurik izatea zer den ulertuko luketen: Camopi.

Badira lurraldeak, Guyanako Camopi bezalakoak adibidez, galdua izatearen esentzia sentiaraz diezaguketenak. Guyana Ariane suziria botatzeko baizik ez dute atxikitzen frantsesek eta han kausitzen dira militarrak, autoktonoak, etorkin brasildar ilegalak, misio sanitario-sozialekin zenbait asteren iragatera etorri gazte estudiante ezkongabe eta haurrik gabeak. Hango Wayampi jendakikoak berez dira galduak, zentzu guzietan. Oihanaren erdian. Nehon. Ibai baten bazterrean kokaturik, Brasilgo mugan.

Han, nehork ez du ordularirik. Distantzia ez da kilometrotan izartzen, dena da hurbil edo urrun. Zenbatzea zazpi arte egiten da, gero ‘anitz’ da. Dena den horko jendeak ez du deus zazpi ale baino gehiagotan, ez azienda, ez arropa, ez fitsik. Artetan, herriaren haraindira badoaz delegazioak, xamana modukoak barne, leinu-kide eta auzoengana, oihanean barna, bizpahiru egunez. Bidaia horretan, ez dakizu nora zo-

azen, non zauden xuxen, noiz helduko zaren. Deliziosa.

– Urrun da?

– Bai, urrun da.

– Zenbat? Zenbat kilometro? Urrun nola?

– Ha ha! urrun, urrun!

Bakanak direnez xendrak, ardura hangoek bakarrik ikusten dituzten arbola batzuen arabera markatua da ibilbidea. Bidean, hots oihanean, gelditzen bada, edozein arrazoirengatik, ezin da taldearengandik urrundu: taldea da zaren okzidental miserablea biziari eta munduari lotzen duena.

Deus ikustekorik Laffitte edo Saubiole karrikekin, ez eta ere gure egoera arrunt horiekin, zeinetan lausotzen baitzaigu bista zer, nola eta norekin egin asmatzen ez dugulako.

– Bakarturik bazara, ez mugitu, ez egin aitzina, ez gibelera, egon zaren lekuan eta oihu egin behin eta berriz.

– Bilatu eta aurkituko zaitugu. Bestenaz, galdua bazara...

– ...eta ez bazaitugu aurkitzen...

Sinesgaitza. Eta zu, airos eta pentsakor, izaririk ez duten oren eta lekuak kurritzen dituzu jende horiekin.

Eta hor, dramaren mugetan zaude, zuhaurrek ez dakizula.

Halako batean, bidaiaz abiatu eta gutxira, oihanaren erdian, arratsalde erditan, afariko fruitu biltzen gelditu zara, taldeko beste kide pare batekin. Ez zara urrundu, ez, hor berean egon zara. Hala uste. Oihana da. Beltz-beltza. Landare eta urek jana. Bat-batean altxatu zara eta zure itzulian ez duzu kiderik ikusi, entzun ere ez. Selban landareek dena jaten dutenez, ez dakizu nondik iragan zaren, nondik etorri. Arbolak hain gora eta tinkoak izanki, ipar eta hegorik ezin desberdindu, ezin jakin eguzkiak nondik jotzen duen. Ordulariak gauza gutxirako balio dizu, telefonoa, GPSa eta beste perttolikeria frankoren gisan. Luze gabe jabetu zara, nehork ez dakiela non zaren, non bilatu, beharbada nehork ez duela zuri pentsatzen. Harrabotsak milaka, txorienak, muskerrenak; oroitu zara aditzen direnak ez direla arriskutsuenak. Ohikoak eta barneratuak dituzun kontzeptu guziak airatu dira, inutilak. Eta sentsazio egiatan ikaragarri bat zure izate osoaz jabetu da, behetik gora, hesteak korapilatuz, burtzoratzeraino: ez zara nehor, nehorentzat, nehon, nehoiz. Engoitik, oihu eginen duzu, indar guziaz, hatsa galtzeraino, zintzurra xehatzeraino eta luzaz, luzaz. Aldizka irri

zaintsu geldiezinak inarrosiko zaitu, beste bi mindulinekin zaudenean bezalatsu.

Horri deitzen zaio galdua izatea, eta sentituak ez du deskribatzailerik.

Bestalde iduriturik ere, gutxi gorabehera nondik zabiltzan dakizuno, den mendreneko xendra bide bat gelditzen deno, jenderik badeno zutaz arranguratzeko, ez zara galdua. Errealitatea eta pertzepzioen arteko distortsioak pairatzen dituzu.

Irriz karkailaka jarraikiz, seinalatu nien nondik joan behar zuten nigana hurbildu ziren bi kuia-liliei. Atsegin auhen batean hartu zuen neskak erran niona:

– Helbidetik 200 metrotara zarete.

Lehenago agurtu ez baninduten, orduan eskertzen ari zitzaizkidan ezin kantituz.

Bihar ezetz

Gaur bai, bildu dut indarra, zirrikitu bat kausitu, laguntza ere; garaitu dut ene menderatze lanetan zihardu en deabrua.

Atzo etorri zitzaidan, beste behin, sufizientziak asea, elea gogor, zimurrak ageriago usaian baino, idor, usaian nola, ar batzuek horrelako jokamoldeak dituzte. Nagusikeria gohaingarriak itotzekotan zuela, harremanak etengabeko lehian irudikatzeko jiteak akuilaturik, gaiaz kilometrotara urrundurik jada, urteen zuhurtzia, horiek eman arrazoia eta ohore istorioz mintzatzen aritu zitzaidan, pozoia botatzen amaitu ezinean.

Ezustekoarengatik, lotsarengatik, agian inguruan nehor ez izanagatik edo nehor ez ihardukitzeko gauza, ez nuen asmatu zer erantzun, nola atera atakatik. Tarteka otu zitzaidan arrazoia zuela, zozoa nintzela, segidan ideia hori haizatzeko: arazoa ez zen hor kokatzen. Ihardetsiko nion, gardenki, jabalki, izpiritua ez banu jada lurrundua ukan. Altxa eta alde egin nezakeen, ihesaren edo gelditzearen ondorioak neurtzeko gai

izan banintz. Orduan egin nahi izan nion irri bat, ahalik eta naturalena, goxoena, Audrey Tautouk egiten dakizkienak bezalakoa, zakil bat izateak ez diolako bermatzen deus, ez duelako sinesgarriagoa ez eta egiatik hurbilagoa egiten, ez diolako baimentzen besteen jendetasuna bahitzea. Ez jaisteko bere mailara, ez galtzeko denborarik justifikaziotan, nahi izan nituen ezpainak mugitu, luzatu, aurpegia ematen segitu; ezin.

Baina gaur bai. Lortu dut. Entzuna izatea, kideak ondoan egotea, gauzak lekuan berkokatzea. Konkordatu dute tokiak, uneak, inguruak, erasoak, kuraiak, ene gogoak, sostenguak, dena bat. Bihartik goiti, denek elkarrekin, ez dugu gehiago izanen haren beldurrik.

Karpeta zaharra

Maiz karpeta zaharrak errukirik gabe uzten dira erraustsa jaten apaletan, lekurik aski den bitartean botatzera deliberatu gabe, inkasean, norbaiten beha.

Karpeta zaharra, bi hitzen artetik behakoa apaletara galtzen zihoakidala ikusia nuen. Han, bazter batean, aspaldiko partez, beste batzuen artean, noizbait eman klase batzuez egin bilduma, izenburua letra garbi eta koloretsuz saihetsean zeramana oraino.

– Ondoko bilkura 18an, hemen berean? Bai? Finkatua!

Hamar bat urte lehenago, ikasle talde batekin erabili karpeta zen, orduan atondu materialez hornitua, han berean egoki oraindik. Nik salbu nehor gutxik zezakeen erran nondik zetorren, nork eginik, nola.

Sailkagailua zabaldu gabe bere baitan bildua, kasik integralki, zerrenda nezakeen, orri horaildu bilduma egitera heltzeko izerdirik aski kostatu zitzaidalako agian. Gogoratu zitzaizkidan kideak, kurtso horiek prestatzeko norekin aritu nintzen, hauek berek lehenago burutu lanez, nihaurek eskuetan ukanak ni-

tuen eredu jada desagertu haiek, orduko gorabeherak eta bi ateen arteko aipamen eta eztabaidak, ikasleak, giro langile baina atsegina, orduko solas animatu eta alaiak, elkarrekin iragan une goxoak.

Oroitu nintzen predikatzen ziren ereduetatik baino intuizioetatik eraiki nuela, hauek berak beste batzuenetarik zetozelarik, sinestez, indarrez eta lagun arteko irri karkaila artetik.

Geroztik eta tarte guzi horretan, hor egona zen. Ezin jakin xuxen zergatik, zertarako. Agian, gaurko egunean zenbait gauzez pentsarazteko. Ezin jakin xuxen norbaitek noizbait ireki zuenez geroztik. Berdin zuen jada, zaharra zen-eta.

Astebete berantago, leku berera itzulirik, soa apalera lerratuko zait segur aski, bildumaren xerkan, araiz beste izkina batera mugitua izanen dela ohartuko naiz: nork? zertarako? Berdin litzateke funtsean.

Altxor maitagarriak dira karpeta zaharrak, denagatik: egindakoen, bizitakoen eta bilakaeren lekukoak, tinta zahar eta hauts usainez lagunduak, orritan biltzen dutenetik haratago haien baitan daramate hainbeste, urteak iragan ondoan oraino ukan dezakete balioa eta guregana berpizten dituzte atzoko ahotsen oihartzunak.

Heroiak

Bihar heroien neurrikoa bilakatuko naiz, fierki doazela lohi erraustua zirimolatan altxatzen dutenak bezalatsu. Ene neurriko heroi txikia, nehork ez duela jakinen, nik salbu eta aski zait.

Ostirala izanki, ez naiz joanen lanera eta abusatuko naiz ipar Baionako ostatu batean. Ondoko aulkira hurbilduko zait emazte bat. Gazterik higatua. Ezaguna eginen zait, behin baino gehiagotan gurutzaturik Baionako auzo desberdinetako ostatuen inguruan, zerbaiten eske edo beha. Ez dakit zein ibilbide izan duen. Ez naiz segur burutik biziki xuxen denik. Hasieran, ez diot atentzio gehiegirik emanen. Ondoko mahaian jarriko da, esku hoztuak igurtzi eta agurtuko nau. Erantzuteko burua altxatuz ohartuko naiz inguruko guziek begiratuko gaituztela. Gertatuko zait giroan zerbait pisu, isiltasun hori, auzoko jende horiek denak pertsona miserable horri begira, epaituz, keinu bakoitza neurtuz. Batere ez sanoa. Holakoek nardatu ohi naute. Helduko da istantean zeinetan ene burua ikusiko dudan hortxetan jarririk, burges ttipia, kikararekin buruz buru

egunkaria hostokatzen. Eta orduan da gertatzen hasiko.

Aldi honetan, ez naiz egonen besoak dilindan, duela bi aste gertatu zen bezala. Orduan ez bainuen jakin zer egin, etsigarriki.

Egun hartako goizalde erditsutik gutxira agitu zen, bulego gibeleko aldeko etxe multzo baten arteko korralean gora, saihets bateko apartamentutik zetozen hango bizikideen orroak auzo osora hedatu zirelarik. Eguneroko leloa bilakatua zen kalapita partidaren hasiera markatzen zuen, auzokoentzat balkoietara kutzukan ateratzeko tenorea, etxeko amentzat haurrak biltzekoa eta bestaldeko izkinako okinarentzat bizkarra emanik labeetara itzultzekoa. Hor bizi ziren *Ceux du deuxième*, etxeko lasaitasuna eta bakea, familia giroaren goxoa, beso-arte baten amultsutasuna, fereka baten epela, arrotz zutenak. Jende tristea, ibilbide patetikoa, bizimolde negargarria. Ez zuketen mozkorra bekan baizik freskatzen, eta bizirauteko gutxienekoaren erosteko ez bazen, ez zitezkeen etxetik ateratzen. Nehork ez zezakeen erran zehazki zertarik abiatzen ziren kexaldiak, bazirudien pertsona horien biziaren erregulatzailea zela, bizirik segitzen zutelako seinalea. Egoera ez zuten aldatu ez auzokoen oharrek,

ez zerbitzu sozialek, ez herrizainen noizbehinkako bisitek, ez eta ere puntualki zentro zenbaitetan burutu egonaldiek.

Erregularki, tenore berdintsuan, auzia pizten zen, hazten, tonua igotzen eta oihuak hedatzen ziren, tarteka pareko egoitzetako ate eta leiho zerratuak zeharkatzeraino. Elkarrizketa antzuak. Bizioek eta miseriak xehatu bozak garrasika. Erranaldi lerrokatze amaigabe bat, gordin bezain gogorrak, botaiak deblauki eta erretorikoki. Egun txarrenetan, hitzetatik harago, kolpeak ere banatuko zirela antzematen bazen, nehork ez zezakeen asma noraino joan zitezkeen trukaketak.

Bihar goizean, ostatukoen behakoa gainean sentitzean, ene baitan barna piztuko da betiko sentimendu hori: enpatia, erosotasunaren lotsa eta ondokoarenganako urrikia, miseriaren borrokatzearen beharra, injustiziaren ukoa. Hasiko naiz imajinatzen mila gauza eta horien artetik mintzatuko natzaio:

– Nahi duzu kafe bat?

– Bai, milesker. Milesker. Ebaki bat?

– Ebaki bat gehiago, otoi, lagun honentzat –manatuko dut, aulkitik altxa gabe ere, besoa luzatuz.

Hortik aitzina, ostatuko bitxikeria bilakatuko naiz ni. Berdin zait.

Gauzak zer diren, ezin izanen dut erreprimitu emazte ezezagunari galderak pausatzeko enbeia:

– Nondik zatoz? Hemengoa zara?

– Ez.

– Baduzu etxerik?

– Dependitzen du. Milesker kafearengatik, hain hotz da kanpoan eta jende hain gutxi dabil karriketan. Ez dira gelditzen mintzatzeko.

– Nora joanen zara gero? Badakizu laguntza emateko zerbitzuak badirela?

– Bo, ez dakit, beste ostatu batera joanen naiz. Edo supermerkatura: han beti bada jendea, haurrak, musika...

– Nola duzu izena?

– Brigitte.

Eta berak segituko du, agortu gabe. Kontatuko didana egia ote denez ez zait inportako; aitor dezadan, nahiko nekagarria eginen zait momentu hori. Hizketan jarraikiko duen bitartean, oroituko naiz hortik hurbil lan egiten duela ene ikasle izan zen gizarte laguntzaile batek. Oraino baditut haren telefono zenbakiak, horrelakoa bainaiz, mila botiga atxikitzen, badaezpada.

Bi aste lehenago ere saiatu nintzen. Bikotearen eztabaida eta oihu biziek auzoa oren batez kutsatu

ondoan, eten bat gertatu zenean erreflexu bera izan nuen. Ohi baino ozenago heldu ziren ahotsak, berdin gogor eta inkoherenteak. Eta bat-batean hiru kolpe. Gorrak. Ikaragarriak. Eta deus. Eta minutu bat berantago, emazteak negar batean ahoskatu zenbait hitz hasperenkatuak. Eta isiltasuna. Ez hitzik, ez azantzik, ez fitsik. Imajinatu nuen norbait egon zitekeela lurretik gorputza mataturik bere odolean itotzen. Telefonoraino joan eta 17a deitu nuen, seguritate zerbitzuengan fida zitekeelakoan. Ondotik beha egon nintzen.

Brigitte kalakari agorrezinari aipatuko diot badirela zerbitzuak laguntzeko, ez naiz gai errateko zehazki zer erranen diodan, solas nahasiak izanen baitira, lagundua izateko enbeia eta mesfidantza jite azkarraren artean:

– Bai.

– Baina ez.

– Baina beharbada bai.

Deituko diot ene ikasle ohiari, zuzenduko nau leku egokira. Emazte nahasi galdu eta hoztu hori, auskalo nola, lortuko dut autoan sartzea eta haraino eramatea.

Azken aldian, polizia deitu ondoan, ez zen nehor agertu. Zorionez, nolabait, oren laurden batera, bozak

berriz entzun nituen, gizonarena lehenik, emaztearena gero. Hasieran apalak, ozenagoak bihurtzeko, kalapitari jarraikiz. Gutxienik bizirik ziren. Lantokitik lekutzean nekez irudika nezakeen, gauean, edanari eman arau eta ziplo erori artean, nolakoak gerta zitezkeen eta nolako harramantzak heda. Gutxienik, erdi horretan, ez zen haurrik.

Hegalpera bilduko dudana bihar, Baionako ZUP behealdean den zentro sozialera helduko dut eta han utziko. Badakit eskuarte onean utziko dudala. Nago ea zerbait lortuko ote duten: aterpe bat, artak. Ez dut segur aski sekulan jakinen. Ez nezake gehiagokorik egin. Gutxiagokorik, nekez. Poztuko, beteko nau ahalko dudana egiteak, hortik zenbait egunetara berriz karrikan dabilela ikusiko badut ere.

Ene moldean, nihaurek, araiz, Brigitteren destinoari zangalatraba eginen diot, fatalitatearen atzaparrak jaregin, zirkunstantziek zakarki diseinatu patua ez baitzait onesgarria. Bi oren hartuko dizkit eta horiek gastatuko ez banitu, ez nintzateke asea. Ez nintzateke ene buruarekin konforme doan isileko heroi txikia.

Baratze bat

Ardura igandez noa. Jaiki eta etxe-kideak esnatu gabe eskapatzera helduz geroz joan naiteke larunbatez ere.

Egunsentian baratzerainoko bidea oinez egiten dut, izar-ihintzez busti xendra belartsuan gaindi, baratze kolektiboraino. Hortxe, oihan bazterrean kausitzen da *Eden*-a, haritzondo ikaragarrien maldan eta berriki landatu fruitu arbolondoen artean, hesi garbiz babestu paradisu zatia. Gauak besarkatzen du dena, ez luzaroko, eta doi-doietarik igartzen dira lekuak, lanbro artetik, oraindik maisu den ilargiaren argitan. Hiri bazterretako baratze kolektiboena azken modakoa da, helburua biztanleen arteko kohesioa eta izadiaren ustiapen neurtuaren bideratzea dutela, beste batzuontzat, sinpleki, abusagarria da, oroz gainetik baduelako *Kolkhoz*-etik zerbait eta amestera uzten baikaitu, hogei urte genituenean nola, mundua alda genezakeela, sistema enpoildu eta antolaketa libertarioan gara gaitezkeela.

Aterpea denena da eta han pruntki lerrokaturik daude denen tresnak, sarde, aitzur eta niretzat izen eta funtzio oraindik sekretuetako zenbait gauza, bakoitzak txandaka erabiltzekoak. Zeingehiagokan sartuak dirudite lur alor tipiek, familiako bana, fizela txirikordaz zedarrituak. Giro gozoa nagusi, auzo artekoa, elkartasunezkoa, elkarrengandik ikastekoa. Alabaina, denak baratzezain hasiberriak, nehork ez du sekulakoa ateratzeko asmorik, galdetzen diogun gauza bakarra da zerbaixka eskaintzea, egin indarren truk. Denbora-pasako aitzakia da eta mundu nahasi nahasgarritik ihes egitekoa, eta bide batez ekartzen du auzoko jende zenbaitekin trukatzea, bergizarteratzea hots, hostoak hazten begiratzeko tartea ukaiteaz gain, denbora iheskor aluarengatik libreago. Lurra, elkartasuna, indarra eta saria, abusatzea: maila bat baino gehiagotan zoriona eragiteko tresna.

Dena da egitekoa oraino eta plazera da, goiz izanik ere eguzkiaren lehen indarrek jadanik kitzikatzen zaituztela, izerditzea iraulden eta lur porroskatzen. Betegarria da lur gizen sailen artetik burua altxatu eta norbera bezain ez jakituna (ignorantzia ere kolektiboa baita) den ondoko lur sailekoarekin hizketan aritzea: gauzak nola antola, ereiteko garaiak, bareen neurri

ikaragarria. Berantago, sapa haziko denean, nardagarria bilakatuko da belar txar eta ahago madarikatu zangoen errotik ateratzea, udaberriko lehen bero gaixtoak gertatu ohi dira, oraino usaiarik ez harturik, burua burrunbaka jartzen baitute laster batean; sari freskagarria, lekutu baino lehen, ureztagailuz bazter guziak zipriztintzea. Egunean berean, nekea eragiten baldin badu, xuxurlatzen ditu biharamunetarako promesa eztiak, aroaren, lur koxkaren eta mota guzietako marmutxen kontra eraman borrokaren irabazteko mentura.

Egun bakoitzak dakar berea: aitzineko astean landatu lorea errotu dela dirudi, aurrekoan baino kementsuago baitirudi jada, eta gaur hazi zenbait atera da lurretik, sail hegian papertxo bat lur mokor baten pean utzia izan ez bagenu ez baikinen berehala oroituko zer erein genuen hor.

Eta goxoa da amestea, fitexko, sukaldeko mahai hegian, igande goiz apalez, eguerdiko apairuko, nola bihikatuko dituzun zure ilar biribil teka bildu berriak, azazkal xorrotxaren koskaz errendiaraziak, hazi berde bixiak ontziratu arau hauen berdura usain fresko lerdena gela osora ziliporta tipitan hedatuko delarik.

Kanbiatuz

– Aldatu duzu zerbait, maitea?

Ez da zinezko galdera bat, afirmazioa da eta, aldi berean, ez gauza segurra, baliteke horregatik zaiola gehienetan ez erantzuten:

– Ohartu zara obrak abiatu dituztela ondoko karrikan? Zertaz ari zara pentsatzen?

Atea iragan duzunean iragarri dut berehala, gertatu da aldaketa bat. Ezin erran zein. Sala arazi nahi nizuke aitorpenei idilikoki jarraiki ahal izateko. Ezin asma nola. Noski, itauna ez da egokia: erantzuna bilatzeak emendatzen du xarma, galderak lerrokatzeak erremediorik gabe errautsi lezake.

Bi pertsona ditut orain aitzinean: usaiakoa eta beste bat, biak batera.

Non kokatzen da olde berria: janzkeran, orrazkeran, irribarrean, atorraren zimurduretan, usainean, gerri mugimenduan, ibileran?

Kanbiatu da zerbait, hautemangaitza, egundokoa; bada ñimiñoa, graziaz burtzoragarria, jelosia pizgarria, tirriagarria, giro eraldatzailea, errutina akabatzai-

lea: arren, lurrundu baino lehen, zer da aldatu duzu-na?

Biga bostetan Marengora

Baiona
21:15
18°C
43.490220, -1.473143
5-7, Pontrique

Pontrique eta Tonneliers karriken arteko bidegurutzean gertatzen zait. Maiz, gurutze-gunean hartuko dudan norabideak baldintzatzen du gaualdiaren bilakaera.

Gaurdaino nehork ez du leku horretan lokalizatu magnetismo berezirik, ez uren isurtze mugarik, ez topografikoki ezer bereizgarririk salbu hondakin eduki ontzi galkatu eta zaku muinoak, alta horra heltzeko manerak, umoreak, definituko du urratsak norantz luzatuko ditudan, eta ondorioz nola sartuko naizen etxera.

Lanaren ondoko ateraldia aitzina doala, noizbait heldu gara Pontrique plazara. Badakit. Urratsa mantsotu zait, taldea balaztatuz, gelditu gabe. Ibilera al-

datuz oinak mugimendu biribilagoan doazkit, aitzina haizatuak, zirkulu erdiak definituz, nagiki. Eskuak sakeletara eraman ditut, barna, kontzentrazioa erraztеko. Ardura hobeki hartzen ditut erabakiak eskuak sakeletan emanik, gogo eta gorputz menbruak bildurik.

Toki horretatik, perimetro mugatu batean izanki, aukera infiniturik gabe gutxienik hiru ditugu.

Lehena, iparralderakoa da, nahiz ekialdetik iragan Patxa plazan gaindi, Marengora jotzeko, gogoz ezagutu ohiko ostatuetatik. Etxera akuilatua banintz, dela nekea, dela asperdura, dela eztabaida batetik libratzeko enbeia, erraza litzaidake. Lehen, urrunago ere pusatzen genuen, Bourgneufen barna; hango ostatuak desagertuz joan ber, ibilbiderik zintzoena bilakatu zaigu.

Bigarren posibilitatea nuke hegoaldera egitea, Pannecaurantz, Cordeliersen gaindi, San Andres plazaraino heltzeko. Hasteko karrika zabalagoak dira hersturarik eta mugarik eragiten ez diotenak gorputzari. Bizkitartean, zirkuitu anitzez arriskutsuagoa da, luzeagoa baita, gazteagoa ere, ezagunez josia, atari bakoitzean kalakan gelditzearen beharra, korapilatzeko paradak. Hautu hau egitean, oraindik ez badakit

ere segur, gauerdi gabe arraila gertatzeko eta mundua bost aldiz berregiteko bidean nintzateke.

Hirugarrenik hor dut mendebaleko xendera itzaltsua, galbidea, gaueko giroarena, basagoa. Ene baitako ezinen kiskaltzeko beharra dudanean, astelehena bitartean memoria garbitzeko errezetarik hoberena da. Hor dira ostatu frantsesak: ezagunik gabekoak. Ihaurri dira neska, mutiko, atsoz eta perbertso zaharrez, epai nazakeen nehor gabe, eztabaidatan sartzeko aukera gutxi. Posibilitatea eskapatzeko. Ez da herririk salbatzeko, proiekturik defendatzeko, justifikaziorik emateko. Bakarrik nuke mojitoak jausteko lana, neska-mutiko gazteen atorra irekietan begiak lerratzera utziz. Sudurra tapaturik urrin garestienen nahasketa okaztagarri, izerdi eta alkohol baporeengatik, bat eginen nuke doinu gorgarritan kulunkatzen diren okela masa horiekin, ostatuaren lau kantoietan ezarri pantailetako partida mutuei so daudela, noiztenka lepo inguruan beso umel eranskor hotz bat jasanik. Ez hemengoa, ez hangoa, besteak bezalakoa. Gaindosira heldu arte, hastiatzen dudan axolagabekerian eta normalitatean urturik.

Alabaina, hautu korneliar horiek taldetxoan negoziatzen ohi dira, neurturik eta elkartasunez.

– Hala! Guk autoa hementxe dugu aparkatua. Nondik segituko duzu?

Eskuak itsatsi zaizkit sakela zoletan.

Soroan hordi

Bidaiaz abiatzeko goiza. Bikote eta haurren buru aire murrukutunak. Hitza xuhur. Esnatu gabe irentsi kafesne goporra, luzaz itzulika ibiltzekoa sabelean, bihurguneen arabera. Oraino lo mokor autoan kokatu, ahal bezain gutxi nardatuz. Haurrak berriz lokar daitezkeelako esperantza. Gibeleko maleta gainezka. Gainerakoak aulki artean kokaturik, zango azpietan. Askariko ogitartekoak bereiz. Jostailuak eskura. Ur botila. Ez ahantzi, ur botila menean. Autoan sar, pitz eta parti.

– Ñuñua! Ahantziko genuen txikiaren ñuñua! Eskerrak autopistan sartu aitzin ohartu garela!

Oinetan oraindik egunerokoetako pisuak, astun. Zangoak iltzatuak azeleragailuaren oinpekoari. Bidearri lotu. Etxetik urrundu arau, arinduz goazela ohartzea, biziari esnatuz. Bidearen haritik paisaia iragaten doa, mundua bihurtuz ia debaldekoa, agertu arau desagertuz baitoa. Gogo-gorputzen unamak askatzen joan beharko da engoitik, arnasa luzatzen utzi eta arintzen zama. Errutinaren gaitzak peagean utzi. Zan-

goak bidean, begiak errepideari so, gogoa nehon, libratzear. Denbora gelldituko da, zeharbide bat markatzeko, guzia inportantzia galduz doa autoan direnek hartu arau.

– Ikastolan hasi gara prestatzen zure bestako oparia ama.

– A bai, zer da?

– Ezin dizut erran. Berdea da. Aitak badaki, baina ez dizu erranen.

Okaztatu arte asfaltoa irentsi ondoan, heldu da pausa baten egiteko momentua, autobide bazterretako zelai inpertsonal garbiegi horietarik batean. Kafe erzatz bat, kruasan idor batekin. Itzulipurdika erortzeko prezioa pagatzean lapurreta hutsa iriztea baino, irribarre batean preziatzea oporretako hel lekurako lehen etapa pasatu izana. Bide erditan garela ohartzea, munduak berdin jarraitzen duela gu gabe, han, eta guk hemen, ezin hobeki, askatze minak gaindituri k.

– Aita! Bada tranpolina egonen garen lekuan?

– Uste dut ezetz.

– Beraz beste norabait joan nahi dut.

– Tranpolina niretzat –oldartu da txikiena–, niretzat da, aita, ni e!

Berriz abiatu aitzin beharko dira haurrentzat hartu abusagailuak atera, bata bestearen ondotik eskura ematea zaindu, agortu arte, fiteegi noski, lekua uzteko: «urrun gira?» erretorikoari, maizago erran eta bidaia zaluago burutzea bailekarren. Hiper eszitazioari erantzuteko estrategia geroxeagoko: klimatizazioa igotzea. Baina ez sobera. Hotzegi bada, pixa egiteko enbeia piztuko dielako.

– Begira ama! Zubia! Alimalekoa!

– Gidatzen ari naiz.

– Begira zubia hor! Aitzinean. GPSan!

– Zer debru da hau? Nola GPSan? Begira ezazue leihotik!

– Aita, zendako ez da sekulan tunelik zubien gainean?

Bada kapritxoaren mailakoa, helmugatik hain hurbil egon eta bide bazterreko leku deskart eta higatuetan gelditzea, udaz uda hamaika, ehunka, nork daki, berdin milaka familien bazkaritako mahai prekario itxurarik gabekoan jarri eta ogitarteko epelak aluminio artetik ateratzea, ñaka-ñaka, etenaldiaren zigilatzeko: ogia eta patea, bakantzetan gara.

Autopista, departamentalak, kamioiak, gasolindegia, karamelu poltsatxo bat. Etenaldi bat egiten den

aldi oro, zailagoa baizik ez da bideari berriz ekitea, berriz jartzea autoan, konfinaturik gure gogoetentzat jada hertsiegia den leku horretan.

– Helduak gara, ama?

– Laster.

– Laster nola? Ikastolara bezala ala amañiren etxera bezala? Maika lokartu da.

Eta, azkenean, heltzea. Betetzen ahalko da errito partikular sakratua. Aitzineko guzia azken honetarako. Ez baita unea hain ona izanen bidea nekagarria izan delako, alderantziz baizik, ona delako jasan dela nekea.

Oihan hegi bat, zelai, larre bat atzematea eta zangoak han landatzea. Hantxetan oinutsik jartzea, belardian, behatzak lehertuz belar trinkotan, artekak oro bete arte, mundua oinpean eta burua ortzi-mugan. Sentsazioa, hastapenean, ez da erosoa, aldiz ohitu ondoan gogotik da zangopilatzen masa malgu xixtakorra. Berantago erritoa bukatu etzanez, soropil beltzaun gozoan, luze, zabal, eta zeruarekin buruz buru, gorputza lurrean eta gogoa zeruan. Han egotea, isilik, lur epel eta soro xarpot usaintsuan besarkaturik. Ahal dela, hor iraun, gaua arte. Iluntze epelak eskaini be-

sartean, burua soroan, oinak airean zeruan ibilki eta izarrak nigan. Hordi.

Lagun ona

«Gmail: 1 mezu berri».

Olatz da. Berantago ikusiko dut, lasaitasun tartea dudanean, ez dauka presarik, zalantza batekin liteke, iritzi beharra, luze jo dezake. Olatz da lagun on bat. Lagun ona.

Gizonek beharbada, hasteko emazte anitzek dukegu holako bat, urteetan ehun harreman bat, nahiz ez diogun nehori salatzen, batez ere, gizona baldin bada, ez bikotekideei, debaldeko eztabaida eta justifikazio saioetatik salbatzeko, bitxikeria gisa ikusiko bailukete, kalapita luzeen iturri litekeelako, deusengatik. Uler bailezakete, agian bai, aldiz nekez onar. Oroz gainetik ez diegu aipatzen, berek ere izan baitezakete antzeko bat, beharbada emaztea, eta horren aitorpen soila buruhauste gaitzen metxa genuke.

Normalki, lagun onarekin interes zenbait bada komunean, gutxienekoa, filiazio azalgaitzaren altxagarri dena eta ekaia eman dezakeena elkarren arteko harremanetan. Haatik ez dugu komunikazioaren eduki nagusia.

Azaltzeko, lagun onak, batzuetan sare sozialetatik, buruz buru bakanetan, telefonoz gutxi, nagusiki emailez jasotzen ditu eta eskatzen gauzak, entzuten du kontatzen diogun hori, erantzuten gehiagokorik galdetu gabe, aholku objektiboa ematen, interesik gabeko kanpo iritzia, noizbehinka gogorki eta krudelki gure lekuan birkokatzen: halaxe eskatzen diogulako, hori baitu funtzioa. Irregularki, maiztasun eta intentsitate arras muturrekoetan gainera, egunetako mezu joan-jinen hari luzea nahiz laburra sor lezake: kezka eta pozen aipamenak, eguneroko gorabehera arrunten kontaketak, jakinarazpen hutsak. Bizkitartean ez zaio dena kontatzen, nahi dena baizik.

Argiki, ez da Glattauerren bi eleberritako teasing miserablearen mailako harreman bat, aldizkako manipulazioaren labirintoetan galgarri, izakien aroaren araberako tirrien menpe, sorpresa izpirik gabeko amaiera gezakoa. Oraino konplexuagoa da. Pertsona horrekiko harremana baiki platonikoa da, erakarpen fisikorik ez du, erakarpena hurbiltasun eta sentikortasun intelektualaren mailan kokatzen da, nahiz askorentzat bien arteko muga lausoa gerta.

Denetik baino, ez-denetik definitzen da. Maiz ez da emaztea izaten, sexu berekoen artean lehia punta

baita, ispilu efektu bat elkar-ulermena faltsutzen duena. Artetik naski, sexu berekoa balitz, ez litzateke aitzakia susmo eta interpretazio okerretarako, gardenagoa litzateke, normalagoa. Gauzak zer diren, ni hasteko, betidanik hobeki konpondu naiz mutiko eta gizonekin. Ez da lankide bat, ez kolaboratzailea, ez da alternatiba, ez haurra, ez norbait zeinekin mozkortzen garen, ez norbait norekin antzerkira goazen, ez senarra, ez aita, ez amantea, ez sex-friend-a, ez kargu bat, ez konfidente absolutua, ez kontzesio eskalea, ez engaiamendua, ez erregularra, ez konplikatua. Harreman horrek ez du garapen perspektibarik, bere horretan segitzea aski zaio. Elkarri galdetzen diogun bakarra da izatea, behar deneko.

Sekulan galaraziko balidate, huts eginen balit, huts eginen banio, urrunduko bagina, orduan, nork eta nola salbatuko lituzke orkidea eta zitoria? Nork entzunen luke isiltasunak xuxurlatua?

Bayonne 17

Etxe zuri gorrien artean badago bat, igandea baitu, bazkari eguna preseski: jendakiaren adar guziak ordezkatuak dira, umore onarekin eta ontsa jantzirik, ni barne, ahalik eta normalena agertzeko ahaleginetan.

Aperitif gaitzaren ondotik, bazkaria goxoki abiatu da, udazken giroan.

Solasak harilkatzen dira, buru eta buztanik ukan beharrik gabe, batarekin zein bestearekin, bai bakoitzarekin zerbait, sentsibilitateei beti erne, denak ez baitira hiritar, ez ezkertiar, ez abertzale, ez kaka nahasle. Zuhaitz genealogikoaren adaxken arteko lotura berpizten da baita ez daudenen itzala: aita hor balitz, hamar egunez jorran aritzeko bazka kausi liro.

Ohi bezala bazkari amaigabeetan, hastetik buru edari berarekin ariko naiz, arno xuria egokia da horretarako, xanpaina hobe, denen aitzinean kolore guzietakoak nahasiz itxurarik ez galtzeko kezkarekin batetik eta bestetik ihardukitzeko zerbaiten beharra baitut halere. Badu aspaldi haurrek apairu luzeegiari alternatibak atzemanak dizkiotela: selauruan gaindi entzu-

nak ditut, pitzi-patza, kuku gordeka. Ttanttak parada baliatua du denbora zaharretako argazkiak ekartzeko eta oraintsu ateratzeko denen bistara, arrainkia eta bildoskiaren artetik, koinatak eta ahizpak segidan juntatuko zaizkion segurtamenarekin.

Eleak kolore horailez eta itzuli kamustuz jantzi dira, amultsuki, lehengo balentria, iraganaren laudamena eta oraingoaren irakurketak ehunez.

– Gogoan duka Jan Battitten ezkontza eguna? –galdetu dio otto Mizelek Arño koinatari.

– Zer gosea! Ez zian sekulan nehork argitu platerak nork ebatsi zituen?

– Ez diat uste... Eta zer partida ondotik!

Laster, Mizelek kontatuko digu nola haurrak zirenean, festak zirelarik etxeondora jiten zen leinu osoa bezperatik, okasioneko Nafarroa Beherea osotik, ganerrean lo egiten zutela eta nola han, belar metetan luze etzanik, sakelako argi txar baten argitan biharamuneko kantuak errepikatzen zituzten. Eta erreperto-rioa aipatuz, bat-batean, justu bizkotxa atakatu aitzin, otto hasi da eztarria karrakatzen, laster bota beharko dituen koplen iragarle, ingurukoak bildu nahian edo. Hiruzpalau aldiz egin du eztul eta zintzurra larrutuko duela dirudi, bazkari puska nahiz arno liskoa aho eta

sabaietatik kasatzeko. Ohiko errepertorioan abiatuko dira denak, jendakiaren batasuna markatuz, ahots batez errepikak oihukatuz, bertsoak gogoan atxiki ezean.

Gogora zetozkionak oro bota ondoan orroaz, Arñok behatu nau, preseski arbasoen sortetxea bertan ez daukan pieza bildu horrek:

– Etxekoek ere beharko duzie bat bota! Kantatuko daukuxu zerbait ba!

– Enda kantarikoak! Haatik ez enbata horienetarik bat e! –gehitu du trebesean ondoko azeriak.

Hala momentu fatidikoa heldua. Begiak apaldu ditut, alegia deusez, entzun ez banu bezala: komunetara joan behar nuke, nahiz hamar bat minutu aurreztea baizik ez litzatekeen, edo joan baxerak egiten laguntzera. Araiz ahantziko nindukete. Lor nezake ez kantatzeko dretxoa? Trukean onar nezake, nik dakita, kontzesio gehixeago gaineratekoan? Kasik espreski niretzat irekia zuten Riesling botila erdikala kliskatu izanaz ez naiz damu. Alabaina, arno xuri eztiaren indarra mateletan gora sendi badut ere, oraino ez aski kantuz hasteko; pare bat gehiagorekin, zernahi eman nezake...

Gutxira, gomita pisuagoa da. Kantu bat. Kantu bat.

– Ale, ze debru, bota zaxu baño hasteko...

Xuri basotara hurrupa bakarrean kalitu ondoan, jiteari abandonaturik, jausiko naiz, aldizka zirtolari, koblari neketsu, kantari.

Ez dut sekulan ontsa neurtzen noiz lerratzen naizen eta noraino: zozoki uste nuen erreserban egonik eta gaitzeko postrea ekarri izanak salbatuko nindutela xurgatua izatetik. Amaigabetasuna, lohasma, klana: bazkari bukaerak, kafe eta ttotten artean, sepia kolorea darama ziliportaka eta ore horretan barna bildu nau, bildurik naute, haien artekoa bainaiz, bitxikeria zenbait gorabehera.

Erlastua naizela dagoeneko, ama hurbildu eta ahapetik kezkatuko zait noizbait, ahalke puntuarekin naski:

– Zer duxu? Moxkortua xira ala?

Aldaira

Etxe alda egunaren hondarra: *klunk!*

Armairu elektrikoan argindarra mozteak eragin *klunka* gorra espazio handiegian paretaz pareta erreferaka erraietaraino heldu zitzaizun; laster, sarrailari azken aldikoz bi itzuli emanen bazenizkion ere, etorkizuneko atari guziak zabalik ikusarazi nahi zizkizukeen soinu hain partikularra, hutsa betetzen zuen azantz hanpatua.

Gutxitan gertatuko da aldaira baten izariko laxante libragarririk, fisikoki, materialki eta emozionalki. Hasteko, ordura arte bizia eta egina, dena, perfektuki nahiz definitiboki sailkaturik zihoan.

Armairuak oro zolaraino hustu ondoan puskileriak kausitu zuen lekua sistematikoki eta pragmatikoki, firurika; zenbaitez harro eta besteez lotsa, ordukotz zinen hori egin zintuzten orok, alta jujamenduaren eguna heldua zitzaien. Hiru mutiko sendo eta prestuk osatu zuten lerroa:

– Hauek denak nora doaz orain? –luzatu zidaten lehen biek.

– Hauek besagainka despeditzekoak dira –erantzun nien bi lehenei kartoi meta bat seinalatuz.

Ahantzi nahiago ziren gertakari eta momentuez, baita gehiegi higatu pusketeria jada enpatxutik bazterturik hobe zenaz bete kutxak ziren.

– Eta beste hauek? –galdetu zuen hirugarrenak.

– Horiek praktikoak dira. Ondoko egoitzara doaz.

Hain zuzen ere, hor zeuden egunerokoan beharrezkoegiak, esku pean laster izateko gisan behar bezala sailkatu eta etiketaturik kutxetan.

Azkenik, denbora hartuz balde finagoetan poliki apailaturik zeuden hainbeste beharrezko ez baina harrotasunez edota amultsuki ondoan gorde nahi zirenak, urtez urte metatu detaile ezdeusak, iraganeko une, jende eta gertakarien lekuko sotilak, behakoaz besarkatu orduko aspaldian airatu hotsak zuretzat bakarrik berpitzaraz zitzaketenak, zentzuz bete girgileria kuttunak.

Horien eramateko lana ez nion nehori eman, nihaurentzat erreserbatuz.

Ondokoa bai zela une hunkigarria: prozesu geldiezin eta gorde ezineko denboraren lekuko, edukiontzi bakoitza bere ondoko lekura zeramaten bihotza urratzeko ballet lanzinantean.

Hustuketak agerrarazi zituen gela hutsak, zuregana iraganeko zorion eta algaren oihartzun hutsala besterik ez zuten itzultzen. Abusatzeko denborarik izan balitz, negar eginen zenukeen, denboraren ihesari, on-gaitzei, desagertu guziari.

Zoko-moko oro torratzean oroitu zinen budistek ziotenaz: gauzen eta gorputzaren garbitzetik eta antolatzetik hasten dela pentsamoldeen garbitasuna eta hortik beretik arimarena. Azkenean, metatu zorigaitz, ez beharren behin betiko purga bat-batekoa, mustuka ukaldika.

Eta azkenean, elektrika kontagailuko etengailuari hatz puntaz eraginez: *klunk*. Etorkizunaren estreinaren *klunka*, kapitulua zigilatuko zuen sententzia nola.